

# **Ongi etorri Ordiziara!**

**Ordiziako Kultur  
Aniztasunerako eta  
Bizikidetzarako  
I. Plana**

**2022 - 2024**



**ordizia**  
bizi herria



**AURKIBIDEA:**

1.- Sarrera .....	4. or
2.- Helburuak .....	9. or
3.- Ordiziako Kultur Aniztasuna eta Bizikidetzak lantzeko eta kudeatzeko ardatzak .....	11. or
4.- Harrera Protokoloa eta Hiritartzeko Ibilbide Integralaren egitura .....	13. or
5.- Hartzaileak .....	14. or
6.- Udal Harrera Sarea .....	14. or
<b>I. FASEA. HARRERA</b>	
7.- Harrera-saioak .....	17. or
7.1.- Ongi etorri Ordiziara! Informazio-saio integrala .....	18. or
7.2.- 'Ongi etorri' harrera instituzionala .....	20. or
7.3.- 'Ongi etorri' harrera-saio txikiak .....	20. or
8.- Harrera-taldeak .....	21. or
<b>II. FASEA. AHALDUNTZE-PROGRAMAK</b>	
9.- Gai anitzeko saioak .....	23. or
10.- Programa trinkoak .....	24. or
11.- Familia kidea .....	25. or
<b>III. FASEA. HERRITARTZE-IBILBIDEA</b>	
12.- Elkar ezagutza .....	25. or
13.- Prebentzio-trebakuntzak .....	27. or
14.- Hiritartasuna .....	28. or
15.- Komunikazioa .....	29. or
16.- Erronkak .....	30. or
16.1.- Euskara .....	30. or
16.2.- Espazio publikoak .....	32. or
16.3.- Boluntarioria .....	32. or
17.- Metodologia eta balorazioa .....	33. or
18.- Ekintzen fitxak .....	34. or
19.- Kronograma .....	67. or
20.- Ekintzen laburpena .....	69. or

## 1.- SARRERA

Txosten hau, migrazioaren eta aniztasunaren inguruan azken hamar urte baino gehiagotan egindako ibilbidetik, erronka berrien formulazioetatik eta herrian jatorri aniztasunak duen presentziatik sortu da. Proiektu honen diseinua aniztasun-kudeatzaileak landu du.

Ordiziako jatorri ezberdinetako herritarren arteko elkarbizitza eta kohesioa sustatu nahi da. Horretarako, proiektu honen jomugan, Ordiziako herritar guztiak daude: jatorri, adin, genero, gizarte- eta ekonomia-egoera ezberdineko herritarrak, herriko eragileak eta erakundeak.

Herritarrak zein erakundeak, ikuspegiak bateratuz subjektu eraldatzaile eta hezitzaile izatera bultzatzea da proiektu honen erronka nagusia. Ulertuz, honela soilik gauza dezakegula kultura-aniztasunean oinarrituriko ahalduntze prozesu bat, herritar orenen parte-hartzea posible eginez eta horien inplikazioa lortuz.

Proiektu honen bitartez, pertsona bat Ordiziara iristen denetik, ingurunea eta bertako bizimoduaren ezagutzarik gabe, hiritar bezala, subjektu aktibo eta eragile izatera heldu arteko ibilbide osoan bidelagun izan nahi dugu. Kontuan hartu behar dugu iritsi berria izateak, hasera batean, herriko martxatik kanpo sentiarazten duela, eta horri hizkuntza ez ezagutzea, erlijio eta bizi ohitura anitzak, eta sare komunitariorik eza gehitzen badizkiogu, bide hori errazteko erantzun integral bat emateko gai izatea litzateke erronka.

Esandako hau gauzatze aldera, ezinbestekoa ikusten dugu **sare-lana** lantzea.

Hau guztia aurrera eramateko lantzen ari garen eredua "*Kulturarteko integrazioa*" kontzeptuan oinarritzen da.

Kulturartekotasunaren oinarrian ulertu behar dugu, kulturek beste kulturekiko harremanarekin soilik egiten dutela aurrera, ez bakarka. Horregatik, gure herrietan, kulturarteko elkarrekintza bultzatzeak konfiantza sustatu eta komunitateen arteko sareak indartuko lituzke. Bestalde, Kulturarteko Hiriaren arabera, aniztasuna aprobeztatu eta jatorri ezberdinetako pertsonen arteko harremanak, esperientziak, jarrerak, posizioak sustatu behar dira beraien generotik eta adinetatik haratago.

Herri batean *Kulturarteko Integrazioaren* ideia bultzatzea, aipatu berri dugun horren emaitza izango litzateke; alegia, kulturak kulturekin trukatzuz, josiz eta sormena landuz, herri bakar bat eraikiz.



Proiektu honen lehentasunetako bat da, konturatzea aniztasunaren kudeaketa eta kulturartekotasunaren ikuspegia oinarritzko erremintak direla benetan gizartea eraldatzeko. Herri bateko oinarritzko proiektu bilakatu behar dira elementu horiek, eta herritar bakoitzaren rola ondo zehaztu behar da aurrera eramanean ahal izateko.

Izan ere, munduko txoko ezberdinetatik Euskal Herrira etorri diren pertsona horiek bertan geratzera etorri dira eta kultura-aniztasuna (jatorria, hizkuntza, ohitura, sozializatzeko modua, erlijioa, mundu-ikuskerak, genero rola, etab. direla eta) ez da egoeraren araberako fenomeno bat, gure etorkizuneko gizartea definituko duen egiturazko giltzarri bat baizik.

Gure herriko errealitatea kontuan izan dezagun, zenbait datu aurkezten ditugu:

**2021/01/01ean, ORDIZIAKO UDALERRIAN ERROLDATUTA ZEUDEN BIZTANLEAK, LAU JATORRI OROKORRETAN SAILKATUTA.**



Ordiziako jatorriak	2021/01/01 Kopurua	% biztanle guztiekiko
Euskal Herrian jaiok	7472	% 71,00
Espainiar Estatuan jaiok	1063	% 10
Europar Batasunean jaiok	884	% 8,4
Europar Batasunetik kanpo jaiok (Ez EB)	1106	% 10,5
<b>Guztira</b>	<b>10.525</b>	<b>% 100,00</b>



*Iturria: Ordiziako Udaleko Errolda.*


Jatorriaren arabera, 2021eko urtarrilaren 1eko errolda-datuei erreparatzen badiegu, ordiziar guztien % 71 Euskal Herrian jaiok dira eta gainontzeko % 29ak honela sailkatzen dira: % 10 Espainiar Estatuan jaiok, % 8,4 Europar Batasunean eta % 10,5 Munduko beste lurralde batean. EBn (% 8,4) eta Munduko beste lurraldeetan (% 10,5) jaiok diren herritarrak, Ordiziar guztien ia % 19 osatzen dute, iaz baino 56 pertsona gehiago; hau da, ehuneko 0,55 puntu gehiago (iaz % 18,35). Beraz, Ordiziak munduan ematen ari den migrazio fluxuen isla izaten jarraitzen duela ikus dezakegu.

**2021/01/01ean ORDIZIAKO UDALERRIAN ERROLDATUTA ZEUDEN BIZTANLEAK KONTINENTEKA ETA GIZON-EMAKUMEETAN BEREIZIAK**



Sexuari erreparatuz gero, emakumeak gehiago dira soilik Amerikako kontinentean; horrek pista bat ematen digu zaintza eremuan izan dezaketen papera.

**2021/01/01. EB ETA MUNDUKO BESTE LURRALDEETAN JAIOTAKOEN LURRALDE NAGUSIEN AZKEN HAMAR URTETAKO BILAKAERA.**



Egun, Ordizian dauden EBko eta EBtik kanpoko hamar jatorri nagusiak eta haien azken hamar urtetako eboluzioak ageri dira grafikoan. Ikus daitekeen moduan, lurraldeak oso anitzak dira eta ezaugarri oso ezberdinak dituzte haien artean. Horrek areagotu egiten du aniztasunaren kudeaketarako eta elkarbizitzarako estrategiak pentsatu behar izatea, berriazko esku-hartzeak ez dutelako denentzako berdin balio eta erronkak handiagoak direlako.

Aniztasun- eta migrazio-teknikariak dituzten Gipuzkoako beste herrialde batzuk aztertzen baditugu, Ordiziako aniztasuna eta kopurua konpara ezina dela ikus dezakegu:

*Atzerrian jaiotako bizilagunen kopurua immigrazio teknikaria duten edo izan duten Gipuzkoako herrietan. 2020ko urtarrilaren 1eko datuak: Iturria: Ikuspegi. Immigrazioaren Euskal Behatokia.*

Herria	Kopurua	%
<b>Ordizia</b>	<b>1.929</b>	<b>18,4</b>
Irun	9.420	15,0
Pasaia	2.031	12,7
Eibar	3.553	12,8
Donostia	22.663	12,0
Arrasate	2.450	11,1
Azkoitia	1.217	10,5
Errenteria	4.063	10,3
Hernani	2.038	10,0
Tolosa	1.971	9,9
Zarautz	1.999	8,6

Immigrazioaren errealitate hau egiturazkoa dela kontuan izanik, guk ere, gure herria, Ordizia, etorkizuneko jendarte kohesionatu eta berdinzalea izateko prestatu behar dugu eta orain, aukera paregabea daukagu aniztasunak ekartzen duen aberastasuna ondo kudeatu, proiektatu eta denok jatorri ezberdinetako ordiziar bezala, nolako herria nahi dugun amesteko.

Lan honen estrategiak eta diseinuak, IZAN Esku-hartze familiar eta Komunitarioa S.L. enpresaren bitartez dagoen migrazio- eta aniztasun-teknikariak burutuko ditu, beti ere erreferente ezberdinekin kontrastatuz: udaletxe barruan; udal-teknikariarekin (ongizate, berdintasun, euskara, gazteria eta kultura) eta alderdi ezberdinetako zinegotziekin.

Udaletxetik kanpo; herriko eragile ezberdinekin eta Udalerri eremutik kanpo; Gipuzkoa eta EAEko migrazio- eta aniztasun-teknikariekin, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin. Esan behar da, azken bi horiek, urtero proiektuaren zati garrantzitsu bat finantzatzen dutela diru laguntzen bitartez.

## MARKO LEGALA

### - Eusko Jaurlaritza:

Eusko Jaurlaritzako *Herritartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko VI. Plana (2022-2025)*

[https://bideoak2.euskadi.eus/2022/02/22/news\\_75231/VIPLAN\\_INTERCULTURAL\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2022/02/22/news_75231/VIPLAN_INTERCULTURAL_eus.pdf)

Plan honen zirriborroaren aurkezpenean parte hartu genuen EAEko aniztasun-teknikariok gure ekarpenak eginez eta horrek Planarekiko gertutasuna eman zigun.

Plan honek, V. Planak bezalaxe, hiritartasunaren kontzeptua honela jasotzen du: *“Ezinezkoa da egiaz integratzea etorkin egoiliarrei herritarrak direla eta, horren ondorioz, herritartasunak EAEn ematen dituen eskubide eta betebeharrak guztien titularrak direla, berdintasunez, aintzat hartu gabe<sup>1</sup>. (...) Herritartasun berria lortzeko eskatzen den lotura bizitokia da. (...) Herritartasun inklusiboak erabateko berdintasun-irizpidea eskatzen du”.*

Gu lantzen ari garen proiektuan ere kontzeptu honekin bat egiten dugu, eta hiritartasun-kontzeptuari garrantzia handia emate diogu.

Gainera, VI. Plan honek ere, 4.2. Antolaketa – Neurriak atalean eta zehazki 4.2.1. ekintzan ikus daitekeen modura, EAE mailan dauden eragile eta sinergiak batu eta koordinatu egin nahi ditu Sare bat sortzeko. Horretarako, bilerak eta foroak sortu ditu informazio trukerako, praktika onak elkarbanatzeko, formazioa emateko, estrategia bateratuak proposatzeko, eta abar, eta beharrezkoak diren baliabideak jarri ditu. Hau da elkarlan zuzenaren ikuspuntutik, Plan honek duen balio-erantsi nagusia, gure iritziz.

Bestalde, Ordiziako proiektua aurrera eramateko dirulaguntza ematen du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak.

### - Gipuzkoako Foru Aldundiko Plana:

*II. Aniztasuneko Foru Plana. Eskubide berdintasuna (2022-2024).*

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gizaeskubideak/II-aniztasun-plana>

Plan honetan ere sare-lanari, elkar ezagutzari eta koordinazioari garrantzia ematen zaio. Hori dela eta, *“Planaren II. Erronkan, Gizarte zibila antolatuarekin eta beste eragile batzuekin aniztasunaren inguruan lankidetzan gobernatzeko urratsak”* atalean ikus daiteke, ildo estrategikoen bidez, hainbat ekintza daudela Foru Aldundia eta udalerrien artean koordinazio guneak finkatzeko. Honekin batera, udalerrietako proiektuak diruz laguntzen jarraitzeko adierazpena ikus daiteke.

### - Europa mailakoa:

*“Intercultural Cities. Building the future on diversity”* [www.coe.int/interculturalcities](http://www.coe.int/interculturalcities).

Europar dagoen sare honetan (Euskal Herrian sare honetan sartuta daudenak, Donostia, Getxo eta Bilbo dira), aniztasunak dakartzan onurak eta erronkak aztertu, landu eta

---

<sup>1</sup> Gaztelaniara itzulpena: *No es posible la integración efectiva sin reconocer a las personas migrantes residentes su condición de ciudadanos y ciudadanas y, en consecuencia, su titularidad en pie de igualdad de todos los derechos y deberes a que la ciudadanía da acceso en la CAPV.*



planteatzen dira. Sare honetan, kulturarteko hiri baterantz eman beharreko pausuen gida dugu

<https://rm.coe.int/CoERMPublicCommonSearchServices/DisplayDCTMContent?documentId=0900001680301b76>; guk horako ideiak erabili ditugu plangintza honetan. Esate baterako, "lidergo eta konpromisoak" atalean, herri anitza dugunaren aitortza publikoa egitea proposatzen dugu. Gida hau oso baliagarria da arlo ezberdinetako erreferentziak jasotzeko, eta beste lurraldeetako praktika onak ikus ditzakegulako.

#### - Ordiziako Udala:

Genero ikuspegia txertatzerako orduan, 4/2005 LEGEA, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako legea aintzat hartu dugu eta berean oinarrituta dagoen eta **Ordiziako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana (2021-2024)** kontuan izan dugu.

Ildo estrategiko guztiekin bat egiten dugun arren, proiektu honetan modu berezian landu ditugu Emakumeen Ahalduntzea, Ekonomia eta Gizarte Antolaketa eraldatzea eta Indarkeria Matxistarik Gabeko Herria izeneko atalak. Lehen ildoan emakumeen kontzientzia-prozesuarekin lotuta dago (banakakoa eta taldekkoa); izan ere, emakumeak gizarte-, politika- eta ekonomia-arloetako partaide aktiboak eta beraien ekarpenak aitortuak izatea ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko. Gainera, banakako gaitasunetik sareen potentziala garatzea du helburu. Bigarren ildoan beharrezkoa da sexu-hierarkia eta genero-desberdinkeriak gainditzea, bestelako balio sozial batzuk indartzea eta botere eredu berriak eraikitzea. Bestalde, emakumeen aurkako indarkeria saihestu eta erantzunkidetasunean oinarritutako gizartearen sustatu nahi da, genero estereotipoak hautsiz, eta migratzaileen kolektiboetan ere dauden genero arrakaletan eraginez..

Aldi berean, Ordiziako Udalaren Berdintasun Sailak 2011. urteko ekainean editatu zuen "Genero-ikuspegia Ordiziako udaleko kudeaketan txertatzeko gida praktikoan oinarritzen gara, bereziki, Gazteria, Kirolak, Komunikazioa, Kultura, Euskara eta Herritarren parte-hartzea eta boluntarioen sustapena ataletan ematen dituen gomendioetan.

Ordiziako Udalak, bere gidaritzapean dauden egitasmoak kudeatzen dituen bere egiten ditu, besteak beste, Euskararen erabilera arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak xedatutakoa, herritarren hizkuntza-eskubideak aitortu eta herri-agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharrak ezartzen dituen, eta 2000ko Ordiziako Euskararen Udal Ordenantza eta 2017ko Ordiziako Udaleko Hizkuntza Irizpide Orokorrak.

Ordenantza honi (<https://www.ordizia.eus/images/stories/ordizia/Arautegia/ordenantza-araudiak/20-euskararen-erabilera.pdf>) jarraiki, "indarreko legeriak oro har onartutakoan ildotik, honako eskubideak aitortzen dizkie espresuki hiritarrei", besteak beste:

- Udalarekin eta bere menpeko organismo orekin ahozko eta idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- Udalak antolatu edo kudeaturiko ikasketa oro bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- Udaleko edozein bileratan euskaraz jarduteko eskubidea.

Bestalde, 2 plan daude, bata Udal barrukoa eta bestea udalerrinari begirakoa.

-Udal barrukoa: "Euskararen erabilera normalizatzeko plana. 2019-2022 plangintza aldia"

-Udalerrinari begirakoa: "Euskara sustatzeko ekintza plana, 2020-2024"

Eta hementxe biak ikusteko lotura: <https://www.ordizia.eus/euskararen-erabilera-planak>"

Ondoren aurkeztuko dugun guztiak, Ordiziako Kultur Aniztasuna eta Bizikidetzaren landu eta kudeatzeko proiektu bat izan nahi du, horregatik, ondoren ikusiko den moduan, Harrera Protokoloaz gain, Herritartzeko ibilbide guztia hartzen du kontutan. Hasiera batean Harrera Protokoloan zentratzen da, nahiz eta harreraz gaindiko ikuspegi zabalago bat ere eman.

Harrera Protokolo moduan ulertzen dugu:

Herrira bizitzera etortzen den herritar berriari, jatorria edozein izanik eta aukera berdintasun printzipioari jarraituz, ongietorria egitearekin batera, herrian modu autonomoan ibiltzeko eta bertako herritar aktiboa izateko eskaintzen den erreminta.

Horretarako, ongietorria egitetik hasita, ahalduzko programekin jarraituz, herriko dinamiketan parte-hartzeko aukeretarainoko ibilbidea diseinatuko da eta iritsi berriei zein lehendik bertan bizi direnei, baina oraindik baliabideak ezagutzen ez dituztenei eskainiko zaie.

Dokumentu honetan, *Harrera protokoloa eta herritartzeko ibilbide integralak* aurrera eramateko jada lehendik zeuden eta sortuko diren programa berriak aurkeztuko dira, honekin batera, harrera programa hauek aurrera eramateko baliabide ezberdinak eta metodologia adieraziko dira.

## 2.- HELBURUAK

*Ongi etorri Ordiziara! Ordiziako Kultur Aniztasuna eta Bizikidetzaren I. Plana* aurrera eramateko helburuak honako hauek dira:

### Helburu nagusiak:

1. Jatorri ezberdineko ordiziarren arteko **elkar ezagutzarako guneak** sustatu eta indartu, beti ere emakumeen parte-hartzea bermatuko duten estrategiak garatu.
2. Beste lurralde batean jaiotakoei zein oro har Ordiziara bizitzera etortzen direnei, edota jada denbora bat bertan daramatenei, **herria ezagutu, bertan autonomiaz murgildu eta herrian dauden taldeetan sartzeko aukera izan dezaten**, harrera programa integrala eskaini.
3. **Udal Harrera Sare integrala** eratu eta sistematizatu, bertako eragileen ikuspegia bateratuz eta erantzun koherente bat emanaz. Horretarako, sarbide ezberdinak identifikatu eta erakunde zein eragile ezberdinen artean elkarlana sortu.
4. Herriko egitura, talde, elkarte eta dinamiketan sartzeko erakunde, elkarte edota taldeetan parte hartzeko **zubiak** eraikitzea.
5. Arreta berezia jarri bazterkeria egoerak bizitzeko zaugarriak diren herritarrengan, **oinarrizko zerbitzuetara sarrera bermatuz**.
6. Gizarteratzea errazteko, **talde-laguntzako** sistemak garatu, bereziki haur-nerabe eta emakumeentzako.
7. Kultura-aniztasunak dakarren konplexutasuna aztertu eta kulturarteko integrazioaren ikuspegia lantzeko **hausnarketarako zein sentsibilizaziorako espazioak** sortu;

ezberdintasuna aberastasun gisa ulertuko duen herri eredia sustatuz. Helburu honen lanketa bi norabidetan egin behar dela ulertzen dugu: udalean barne mailan arlo ezberdinetako eragileekin eta herritarrekin deialdi irekiak eginez eta jatorri ezberdinetako **pertsona erreferenteak** bilatuz.

8. **Subjektu politiko** moduan, iritsi berriei herriaren eraikuntzan subjektu aktiboak izateko bidea eman.

Programa osoan eta helburu horietara iristeko, zehar-lerroan kontuan izango diren gaiak:

- ❖ **Hizkuntza aniztasuna:** euskara eta euskal kultura harrerarako marko gisa hartuz, gure erroa direlako eta udal-mailan euskararen normalizaziorako planarekin bat egiten dugulako, munduko hizkuntza eta kulturak baliotsuak eta aberasgarriak direla defendatzen dugu. Honela, gure kulturaren bizipenak beste kultura batzuk balioztatzen, errekonozitzen, eta errespetuz tratatzen eraman gaitzala; ulertuz gure kultura errespetatzeak eta errespetatua dela ikusteak soilik eramaten gaituztela besteak ezagutzera eta onartzera, etorri berriei gertatzen zaien modura.
- ❖ **Genero ikuspegia:** generoa bazterketa guztiak zeharkatzen dituen bazterketa-faktorea da: migrazioari, egoera sozioekonomikori, arrazari eta kulturari erantzen zaie emakumea izatearen diskriminazio gehigarria. Beraz, beharrezkoa deritzogu aniztasun-arloan ere genero ikuspegia barneratua izatea.
- ❖ **Duintasuna:** herritar guztien eskubide eta betebeharrak bermatzea izanik helburua, arlo honen esku-hartzea asistentzialismoaren beste muturrean kokatu nahi genuke; norbanakoaren askatasuna eta duintasuna oinarri hartuz, lehen mailako herritar gisa ikusiz eta tratatuz erabiltzaile oro.

Bestalde, zehar-lerroan bezala adierazi ditugun horiek, modu sakonean hausnartzea eskatzen dute, udal-teknikariekin zein -politikariekin ez ezik, gure udaletatik kanpo gaiak hausnartzen ari diren beste eragileekin, esate baterako, EAEko aniztasun-teknikariekin, Ikuspegirekin, Begirunerekin, SOS Arrazakeriarekin, eta abarrekin. Izan ere, beste herrietan euskararen edo genero berdintasunaren gaiak kultur aniztasunaren kudeaketatik nola bideratzen dituzten ikustea baliagarria izan daiteke. Guk ere txosten honetan proposamen batzuk ekarri ditugu, baina dagokien eragileekin kontrastatzen eta hausnartzen jarraituko dugu.

Helburu hauek aurrera eraman eta baloratzeko bitartekoak, Udal Harrera Sareko eragileak izango dira.

### 3.- ORDIZIAKO KULTUR ANIZTASUNA ETA BIZIKIDETZA LANDU ETA KUDEATZEKO ARDATZAK


Goiago adierazi bezalaxe, proiektu honek, pertsona bat herrira iristen denetik, ingurunea eta bertako ezaugarrien ezagutzarik gabe, hiritar bezala, subjektu aktibo eta eragile izatera pasatu arteko ibilbide guztia ematen du. Izan ere, bereziki jatorria beste lurralde batean duten herritarrek eta familiek, beren baldintza eta zailtasun ezberdinengatik, ia beti, harrera gizartean aukera gutxitu batetik abiatzen dute euren ibilbidea, eta horri erantzun integral bat emateko, aurrerago adieraziko diren ardatzak landu dira.

Bestalde, jatorri-aniztasunaren ikuspuntutik, bizikidetza eta gizarte-kohesiorantz abiatzeko erronkak ere jasotzen ditu proiektu honek. Esate baterako, jatorri ezberdinetako ordiziarren artean elkar ezagutzeko espazioak sortzerakoan, aurreiritziak desegiteko tresnak eta nolako herria eraiki nahi dugun hausnartzeko guneak kontuan izan dira.

Aipatutako guztia aurrera eramateko, proiektua bost ardatzetan oinarritu da. Esan bezala, ardatz horien ibilbidearen eta prozesuaren bitartez, pertsona bati, bere baldintza eta ezaugarriak edozein direlarik, gure herriko jendarte eta ingurunea ezagutzeaz gain, bertan txertatu, murgildu eta eragiteko erremintak eskainiko zaizkio.

Dena den, kontutan izan behar da, pertsona bakoitzaren ibilbidea eta beharra ezberdina denez, bakoitza puntu ezberdin batetik abiatzeaz gain, ardatz batean (edo batzuetan) txertatzeko behar gehiago izango duela. UHSko eragileak gai izan behar du hartzaille horren beharra zein den identifikatzeko, ondoren dagozkion deribazioak egiteko. Proiektu hau herritar orori dago zuzenduta, jatorria edozein izanik, beraz, kontuan izan behar dugu, EHn jaiotako den, adibidez, donostiar bat gure herrian erroldatzen denean, bertako sistema ezagutuko duela, baina herriko dinamikei buruzko informazioa eman beharko zaiola, baliabide eta azpiegiturak non eta zeintzuk diren ezagutzera emateaz gain, noski.

Hauek dira ardatzak:



## **1. Ardatza: Harrera**

Ordiziara bizitzera etortzen denari harrera eta herritartzeko ibilbide integral bat eskaintzea da ardatz honen zeregina. Puntu honetan oinarrituta dago Harrera Protokoloa.

## **2. Ardatza: Ahalduntze psiko-sozio-politiko**

Hasieran adierazi dugun bezalaxe, proiektu honek ikuspegi integrala du, hau da, pertsona bat herrian erroldatzen denetik, herrian subjektu aktibo bat izateko aukera izan dezan, ibilbide bat eskainiko da.

Hori horrela, gizon eta emakumeek, jatorria edozein lurraldetan izanik, "hiritar" moduan bizirauteko, ezinbesteko elementuak beharko lituzkete: alde batetik; elikadura eta etxebizitza, enplegua, osasuna, hezkuntza bizi osoan zehar eta administratiboki erregularizatuta egotea. Bestetik; gizaki sozialak garen heinean, natura eta inguruarekin harremana, munduan / bizitzan kokatzeko ikuskera, sinesmenak, ideologiak, kultura, eta abar. Hauek guztiak dira pertsona bezala osatzen eta garatzen laguntzen diguten elementuak.

Horregatik, ardatz honek ahalduntze edo jabekuntza prozesuei erreparatuko die, norberaren autonomia eta ongizatea landu eta indartzetik, kolektiboki *ongizatea* elkarbanatu eta elkarrekin zerbait eraikitze aukera izatera pasaz.

## **3. Ardatza: Elkar Ezagutzea**

Ardatz honek, jatorri ezberdinetako ordiziarren arteko elkar ezagutzarako espazioak bilatzen ditu. Izugarritzko indarra dauka herritarrak modu informalean biltzeko aukera ematen duelako, modu parekidean elkarbanatzeko espazioa. Espazio hori oso malgua izan daiteke, forma ugari izan ditzake eta egokitzeko gaitasuna ere bai.

## **4. Ardatza: Prebentzio trebakuntzak**

Jendartea gero eta anitzagoa da zentzu guztietan eta honek paradigma zaharrak haustera eta berriak eraikitzea eramaten ditu gure herritarrak. Jatorri aniztasunaren kudeaketa da bereziki, proiektu honen jomugan dagoena eta honek ekartzen dituen aldaketa, zailtasun, aberastasun eta erronka ezberdinei buruz trebakuntza lan bat egin nahi da ardatz honen bitartez.

## **5. Ardatza: Hiritartasuna**

Hiritartasuna, izaki politikoaren kontzeptuarekin lotu nahi da hemen. Hau da, egoitza herrian izan eta bertan askatasunez zein autonomiaz mugitzeaz gain, herriko dinamika eta erabakietan eragiteko aukera duen subjektu aktibo izateraino. Honek nahita ez, herria eraldatzera eramango du egungo gizartera egokituz.

Aniztasunaren ikuspegitik, eta bizikidetzat landu eta kudeatze aldera, oso garrantzitsua da herritar berriei harrera-plan bat diseinatzerako orduan, bere prozesua honaino iristen dela jabeaztea. Bestela, egoera gutxituan dauden edo zailtasunak dituzten herritarrei, sexua eta adina edozein izanik, ez dizkiegu inoiz baliabideak eta aukerak emango, hiritar bezala, bere eskubideak eta betebeharrak bere osotasunean garatzeko.

Ardatz hau oso lotuta dago parte-hartzearekin eta aitortzarekin. Beraz, honetara bideratutako programak edo ekintzak oso baliagarriak izango dira ardatz hau lantzeko orduan.

Puntu honek erronka honetara eramango gaitu: inklusiotik, denon artean herri bakarra osatu, denok barneratuko gaituen herria eraiki eta aberasten gaituzten elementuetan

pentatzera. Hausnarketa honek, ondorengoetan eragingo luke: esparru ludikoan (adibidez: festak), aisialdian, elkartzeko espazioetan, paisai urbanistikoan, janzteko moduan, jatorri aniztasunaren ikuspegia herriko dinamika eta arloetan txertatzea, espazio publikoaren erabilera, Ramadanaren bukaera edo bestelako festa ospakizunetarako eskatzen diren espazioen (frontoia, anexoa...) erabilera, eta abar.


Beraz, Harrera Protokoloan arloka edo sail ezberdinetatik landu daitezkeen gai guztiak ardatzen aterkipean kokatuko dira. Modu honetan, ardatzek ekintzei marko bat eman nahi diete eta programa edo ekintza konkretuak, proiektu oso baten parte izan eta zentzua ematea da helburua.

## 4.- HARRERA PROTOKOLOA ETA HERRITARTZEKO IBILBIDE INTEGRALAREN EGITURA

Oraintxe aurkeztutako ardatzak kontutan izanik, bereizi egingo ditugu; alde batetik, lehen fase batean kokatzen diren harrera- eta ahalduzko-prozesuak; eta bestetik, ondorengo hiru ardatzak herritartzeke ibilbidearen barruan.


Hala eta guztiz ere, kontuan izango dugu ardatz guztiak gurutzatu egin daitezkeela une oro, iritsi berrien eta lehendik zeudenen beharrak denbora eta espazioan, kronologikoki homogeneoak ez direlako.

Ondorengo eskema honetan, lehen faseko Harrera Protokoloa aurrera eramateko sortuko den egitura eta programak ikus daitezke:



Bigarren fase batean, elkar ezagutzarako guneak, prebentzio trebakuntzak eta herritartasun atalak ditugu.

Honekin batera, aniztasunaren kudeaketak zeharkako gaiak nola uztartu eta horien inguruko erronkak planteatzen dizkigu ere.



## 5.- HARTZAILEAK

Proiektu honen hartzaileak honako hauek dira:

- Alde batetik; Ordiziara bizitzera etorri-berri diren oro, jatorri, adina, sexua, bertan geratzeko itzaropena / espektatiba eta berriazko beharrak edozein direlarik.
- Bestetik, lehendik Ordizian bizi direnak, baina oraindik herriko dinamika eta baliabideak ondo ezagutzen ez dituztenak.

## 6.- UDAL HARRERA SAREA

Egitura hau guztia martxan jartzeko giltzarria giza baliabideak izango dira, horiek izango baitira, haien aniztasunean, harrera ikuspegi integral edo oso batez eskaintzeko aukera emango dutenak.

Giza baliabideak esaten denean, herriko erakunde eta eragile instituzional eta sozial guztiak hartu behar ditugu kontuan. Norbait herrira bizitzera etortzen denean, bere oinarritzko beharrez gain (osasuna, enplegua edo sostengu ekonomikoa, hezkuntza...), herrian subjektu politiko moduan, herriaren eraikuntzan subjektu aktibo bezala murgiltzeko tresnak eman behar dizkiogulako eta horretarako, nahitaezkoa da espazio formal eta ez formaletan mugitzen jakitea eta horretarako erremintak ematea.

Harreran parte hartuko duten eragileak ondoko hauek dira, guztiak osatzen dute **Udal Harrera Sarea (UHS)**:

- Udal Ordezkarriak: Alkatetza, zinegotzi ordezkarriak eta Udal Batzordea.
- Udaleko Sailak: Arreta Bulegoa, Aniztasuna, Ongizatea, IZAN enpresako eskuhartze familiarra, Euskara, Berdintasuna, Gazteria, Kultura, Kirola, Hirigintza, Ingurugiroa eta Udaltzaingoa.
- Osasuna: Ordiziako anbulatorioa.
- Hezkuntza: Jakintza Ikastola, Urdaneta-Oianguren Ikastetxeak, Alotza Haur Eskola, Goierri Eskola, HHI-EPA Helduen Eskola, Hezkuntza Mahaia, Hiri Hezitzailea.
- Enplegua: Lanbide, Goieki, Goierriko Garapen Agentzia eta Sindikatuak.
- Herrigintzako eragileak: kultur-, kirol- zein gizarte-ekimeneko elkarteak eta GKEak.
- Bestelakoak: jatorri ezberdinetako banakako herritarrak, aipatu ez diren bestelako komunitate edo talde ezberdinak, merkatarien elkarteak, eta abar.
- Komunikazioa: udaleko komunikazio saila.

Horretarako, eragile horien guztien arteko elkarlana bultzatzeko, ikuspuntuak eta erronkak partekatuz, urtean behin edo bitan bilduko gara urteko helburuak finkatu eta balorazioak egiteko. Helburu nagusia, denok norabide berean joatea da, bai harreraren ibilbidean, bai aniztasunaren eta elkarbizitzaren kudeaketan.

#### **UDAL HARRERA SAREKOEN EGINKIZUNAK:**

Udal Harrera Sareko eragileen eginkizunak definitzea ezinbestekoa da Harrera Protokoloak funtzionatu ahal izateko.

Hauek izango dira oinarrizko eginkizunak:

- Eragile ezberdinen arteko elkarlana eta harremana sustatzeko mekanismoak eraikitzea.
- Hartzailerei arreta egiterako garaian, norberaren saileko informazioa emateaz gain, gai izatea sareko besteen oinarrizko zereginak eta programak ezagutu eta haiei buruzko informazio puntuala ematea edota beste sail edo programetara deribazioak egitea. Lan hau errazteko, Barne-gida bat sortuko dugu bakoitzaren zereginak ezagutzeko.
- Erabiltzaileak 'Ongi etorri' programa ezberdinetara bideratzea.
- Haien egunerokoan aniztasun ikuspeirik ez badute, txertatu haien eginkizunetan.
- Gaiak eskaini eta proposatu gai anitzeko saioetarako.
- *Ongi etorri Ordiziara!* informazio-saioetan parte hartu.

Lehenik eta behin, sare moduan lan egiteko, eragile guztiek *Ordiziako Kultur Aniztasun eta Bizikidetzarako I. Plana* ezagutu beharko dute, baita sarea osatzen duten eragileak zein diren ere. Horrekin batera, denok denon berri izan eta helburu edo norabide komunak finkatuko ditugu.

Funtzioetako lehenengo puntuari jarraituz, Udal Harrera Sareko eragileei dagokienez, eragile ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko mekanismoak eraikitze horretan, **aniztasun-teknikariak** honako eginkizunak beteko ditu:

- Eragile guztien arteko koordinazio lanak egingo ditu.



- Proiektuaren diseinua, jarraipena eta kudeaketa egingo du
- Iritsi berriekin harremanak egingo ditu.

Aldi berean, aniztasun-teknikariak, Ongizateko burua, Ongizateko zinegotzia eta IZAN enpresako koordinatzailearekin **talde-burua** osatuko dute. Hilean behin proiektuaren jarraipen bilerak egingo dira eta momentuko erabakiak hartu.

Eragile ezberdinak Udal Harrera Sarean parte-hartzeko prestasuna adieraziz gero, bakoitzarekin bakarkako harremana izateaz gain, urtean behin, **koordinazio-batzar** bat egitea proposatuko da ondorengo gaiak jorratuz:

1. Eragile bakoitzaren urteko balorazioa adieraztea (helburuak lortzeko, mantentzeko eta hobetzeko,...).
2. Harrera Saiotarako ekarpenak eta berrikustekak.
3. Aurrera begirako erronkak.
4. Bakoitzak dakarrena.

Balorazioa oso garrantzitsua izango da helburuak bete diren eta bereziki, zertan hobetu behar dugun eta zer mantendu behar dugun ezagutzeko. Horretarako, gorago adieraziko den orria erabiliko da, nahiz eta beharren arabera egokitzen joango den.

Udal Harrera Sareko eragileekin modu progresiboan jarriko gara harremanetan; lehenengo eragile instituzionalengana joko dugu eta ondoren, sozialengana. Horrela egitearen arrazoa da, 2021eko udazkenean, *Ongi etorri Ordiziara! Informazio-saio integrala* martxan jartzea eta bertan parte hartzen duten eragileekin harremanetan hastea. Horiek jada aurreko urteetan parte hartu dutenez, saioaren nondik norakoa ezagutuko dute, baina proiektuaren osotasuna adierazteko aprobetxatuko dugu bakarkako bilerak eginez. Pandemia dela eta, beste urteetan ez bezala, momentuz ez dugu elkarrekin elkarlanik egingo, baina urtean zehar egingo ditugun ekintzak aprobetxatuko ditugu kolaborazioak egin eta proiektua bere osotasunean aurkeztu eta sozializatzeko.

Bestalde, kontuan izan behar dugu, nahiz eta UHSko eragile guztiek Harrera Protokoloan parte hartu, etorri-berri bat ez dela modu berean eragile guztiengana iristen eta oso garrantzitsua dela identifikatzea zeintzuk diren sarrera nagusiak, bertako espazioak izango direlako pertsonak identifikatu eta ibilbide zein programetan sartzeko bidean jarriko dituztenak.

Ildo honetan, ezinbestekoa da **Arreta Bulegoak** protokolo honetan izango duen papera, bera baita Udalarekiko herritarraren lehen atea. Bertatik honako hau egitea proposatzen da:

- Herritar berriak entzun, identifikatu eta izenak jaso.
- Herritar berriaren ezaugarriak jaso (hauek identifikatzen joango gara jakin nahi dugunaren arabera, baina hona hemen adibide batzuk: adina, generoa, familiar dotozen, hitz egiten dituzten hizkuntzak eta abar)
- Ongi etorri Ordiziara! programa ezberdinetako informazioa eman eta bertan parte hartzera gonbidatu.
- Ongi Etorri harrera-saio ezberdinetan parte hartzeko gutunak bidali.

Harrerarekin lotuta egon daitezkeen beste sail batzuk eta herritarrak etengabe artatzen dituztenak dira, alde batetik, udalaren barrukoak (**Ongizate Saila, Udaltzaingoa**), eta bestetik, udalaz kanpokoak (**Ikastetxeak, Anbulatorioa eta Enplegurako zerbitzuak**).

Aipatutako horiek, bereziki, hartzaileak programetara bideratzen dituztenak izango dira, beraiek direlako, esan bezala, herritar gehien artatzen dituzten eragileak. Dena den, beste guztiek, beraiengana jotzen duten pertsona guztiei informazio orokorra emateaz gain, deribazioak egiteko aukera ere izango dute.

Horiek guztiek programa batera deribazioak egiteko orduan, aniztasun-teknikariari pasako dizkiote datuak eta hau jarriko da herritar berriekin edo lehendik zeudenekin harremanetan programaren ezaugarriak adierazteko (noiz, non, baldintzak,...). Gainera, aniztasun-teknikariak, pertsona horiek ezagutu heinean, programa informalagoetara deribatzen aukera izango du eta horrela, pertsona horien ibilbidea zabaltzeko aukera emango da.

Egoera zaurgarrian ez dauden herritar iritsi berriak, Arreta Bulegoaz gain, agian ez dituzte bestelako baliabide formalak erabiltzen. Hori dela eta, Arreta Bulegoak gaitasun eta ardura handia izango du herritar iritsi berrien ibilbidea bideratzeko.

Aitzitik, beste kasu batzuetan, sarrera guneak, espazio informalak izan daitezke, bereziki komunitate ezberdinetakoak, horregatik, espazio informal horiek identifikatzea eta horiekin harremanak sortzea oso garrantzitsua da, esate baterako: lokutorioak, espazio erlijiosoak, beste jatorrietako pertsonen elkarrekin edo taldeak,...

Amaitzeko, kontuan izan behar dugu, erroldatu gabeko herritar kopuru bat badugula herrian eta horiek, ziurrenik, modu informaletatik izango dutela sarrera. Beraz, horiengana ere iristea erronka bat izango da, nahiz eta jakin, administratiboki mugak esanguratsuak izango dituztela baliabide ofizialek sartzeko orduan.

Ondoren, proiektuaren estruktura

## **I FASEA: HARRERA ETA AHALDUNTZEA**

### **I HARRERA**

#### **7.- HARRERA SAIOAK**

Ordiziako Harrera Protokoloak zenbait programa eta espazio eskaintzen ditu behar eta egoera ezberdinetara egokituta. Espazio horiek Harrera Saioak dira eta saioek forma ezberdinak dituzte ondoren ikusiko dugun moduan.

Programak aurkezten hasi aurretik, kontuan izan behar dugu, iristen diren horiek, alde batetik; gure herrian egoteko eta herria bizitzeko ikusmen eta itxaropen ezberdinak ekarriko dituztela eta bestetik; bakoitzaren egoera eta ezaugarri pertsonalak anitzak izango direla. Hori dela eta, ezin dugu espero pertsona guztien erantzuna berdina izatea, baina gure ahalegina izango da, egoera ezberdinetara egokitutako eskaintzak sortzea eta ahalik eta jende gehienarengana iristea, bereziki jatorria beste lurralde batean duten horiek, saio hauetara etorri ezean, adibidez, herriko dinamiketarik kanpo geratzeko arriskua izan dezaketelako.

Kontuan izan behar ditugu ere, herrira bizitzera etortzen direnak eta inolako interesik ez dutenak herria ezagutu eta bertan aritzeko. Horiek ere eskubidea dute informazioa ez jasotzeko, hau guztia borondatezkoa da eta.

Hiru harrera-saio mota proposatzen dira: 1) Ongi etorri Ordiziara! Harrera-saio integrala, 2) Ongi etorri harrera instituzionala eta 3) Ongi etorri harrera-saio txikiak.

Hiru saio hauek modu ezberdinean erantzuten diote herritar iritsi berrien ibilbideei eta beharrei; horregatik, hiru maiztasun maila izango dituzte:

- Maiztasun altukoak: harrera-saioak hilean behin. Adibidez:

- o Atzerriko tituluen homologazioak
  - o Atzerritartasun Legea
  - o Bestelako Monografikoak (adib.: zaborren kudeaketa, osasuna, Euskaraldia, Martxoak 8/Azaroak 25eko ekimenak, udal-ordenantza, elikagaien inguruan...)
- Maiztasun ertainekoak: harrera-saioak hiruzpalau hilean behin. Adibidez:
- o Azpiegituretara bisita gidatua
  - o Baliabide ezberdinak ezagutu
- Maiztasun baxukoak: harrera-saioak urtean behin edo bitan. Adibidez:
- o Ongi etorri Ordiziara! Informazio-saio integrala. Bi hilabeteko formatua dauka (udazkenean). Sareko eragile guztiek parte hartzen dute.
  - o Ongietorri-saioa udal batzar aretoan. Ongi etorri instituzionala.

## 7.1.- ONGI ETORRI ORDIZIARA! INFORMAZIO SAIO INTEGRALA

Ongi etorri Ordiziara! Informazio-saio horiek 2012tik 2017ra bitartean egin ziren eta 2021ean berreskuratu dira. Guztira zortzi saio egin dira, jatorri anitzeko 115 pertsona inguru pasatu dira, eta horietatik 78 pertsonak lortu dute ikastaro amaierako ziurtagiria. Partaideek zein emaleek oso ondo baloratu dute; horregatik, aurten, formatu bera berreskuratzea pentsatu dugu. Urtean behin egingo da, udazken partean.

### SAIOEN HELBURU OROKORRAK:

- Ordiziara bizitzera etorri diren berriei edota denbora bat daramatenei harrera-saio integral bat eskaini.
- Herriko baliabide, azpiegitura eta dinamiketan murgiltzeko informazioa eskaini, pertsona bakoitzaren autonomia sustatu asmoz.
- Arrisku egoerako kasuak antzeman, eta horiek lantzen eta murrizten saiatu.

### HELBURU ZEHATZAK:

- Sareko eragile ezberdinen arteko elkarlana indartu eta dinamika egonkorak sortu.
- Ordiziako baliabideak eta horien erabilerak ezagutzera eman.
- Pertsona ezberdinekin harremanak sortu eta erreferentziako pertsonak bilatu.
- Herriko dinamiketan sozializatorako zubi lanak egin.
- Herriko elkarteetara gerturatu.
- Partaideen arteko harreman-sareak sortzen lagundu.

Urtean behin egingo da eta bi hilabeteko iraupena izango du (gutxi gorabehera 34 ordu). Geroago ikusiko dugun bezala, gai ezberdinak lantzen dira bertan. Harrera-saio integral honek proiektu osoari ematen dion balio erantsia da Sareko hainbat eragilek (anbulatorioko osasun buruak, ongizate-zerbitzuetako gizarte langileak, udaleko kultur teknikariak, euskara-teknikariak, Lanbide, Goieki, Sindikatuak, herritarrak, udaltzaingoa, eta abar) saioak ematen dituztela eta horrek proiektu komun bat gorpuztu edo azalerraten duela.

Harrera saio integral honek hiru atal ditu. 1) Ordiziako eta Euskal Herriko kultura eta historia. Bertan, herria mapan kokatzen da eta testuinguru historiko eta kulturala aurkezten dira. 2) Herriko zein bailarako baliabide eta azpiegiturak aurkezten dira eta horiek erabilerarekin lotutako saioak ematen dira. 3) Herriko dinamika eta parte-hartzea. Partaideek elkarteak barrutik ezagutzeko asmoarekin, lau asteetan zehar elkarte batean egoten dira, eta bertako ekintzetan eta antolaketan parte hartzen dute. Modu horretan, elkarte horren dinamika eta pertsonak ezagutu ahal izango dute eta bide batez, interesa izanez gero, bertan boluntario geratzeko aukera zabaltzen zaie. Elkarteetako zubi lanak errazteko, elkarte bakoitzeko

pertsona erreferente bat edo bi egongo dira. Esan behar da, proiektu honek asko lagundu duela herritarren arteko **zubi lanetan**, saioak amaitu eta gero ere, zenbait pertsonak parte hartzen jarraitu dutelako elkarte horietan. Dena den, aurten, pandemia dela eta, hainbat elkartek beren ohiko dinamikak alboratu dituzte eta ondorioz, puntu hau egokitu egingo dugu herriko ekintzetan parte hartzera gonbidatuz: hitzaldiak, zinema, giza kateak, eta abar. Modu honetan, herriko dinamiketan parte hartzeko aukera zabalduko zaie. Horrelako, ekintza batean parte hartzea nahitaezkoa izango da saio amaierako ziurtagiria lortzeko.

Azken puntu hau berritzailea izan da gure herrian, harrerak herri ugaritan egin arren, horrelako ekimen bat gure herrian egiten hasi ginelako.

Honez gain, atal bakoitzean zenbait bisita edo irteera antolatzen dira. Lehenengoan, Delikatuz – Goierriko interpretazio zentrorra bisita eta Ordiziako azokara txangoa egiten da. Bigarrenean, herriko azpiegitura ezberdinetara bisita gidatua (kultur etxea, anbulatorioa, gazte lokala, AEK, frontoia, Correos, KZgunea, euskaltegia, eta abar). Eta azkenik, herriko hainbat elkarte etortzen dira haien burua aurkeztea (kirol elkarteak, sozialak eta kulturalak). Bisita gidatu hauek herritarrek egiteko pentsatuta daude.

Hona hemen saioen deskribapen zehatza:

1. GAIA: Bizi eta Elkarbizi. (azpiegiturak, baliabideak, zaborraren kudeaketa, Euskal gizartearen ohiturak, kultura, festak, elkarteak, herriko dinamikak...).
2. GAIA: Ordizia ezagutuz. Ordizia (kokapena, biztanleria, historia, marko politikoa) eta euskara (hitzak, historia, hiztunak, ofizialtasuna, non ikasi)
3. GAIA: zerbitzu eta baliabide publikoak (osasuna, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza-sistema, berdintasun-saila, eta abar)
4. GAIA: Atzeritartasun Legea
5. GAIA: enplegua. eskubideak, betebeharrak eta aholkuak. (sindikatuak: langileen eskubideak eta betebeharrak, lan-hitzarmenak, aholkuak... Lanbide: lan-merkatuan txertatzeko bideak... Goieki: enpresa bat sortzeko bideak).
6. GAIA: atzerriko tituluen homologazioa
- 7.- Bakarkako proiektuen aurkezpena
- 8.- Kirol- eta gizarte-ekimeneko elkarteetan egonaldia edo praktikak

Honekin batera, herriko dinamiketan parte hartzeko asmoz, saio hauek irauten duten epe osoan zehar herrian dauden hainbat ekimenetan parte hartzera gonbidatzen ditugu.

Euskarari egiten zaion trataera aipatu behar da. Denok dakigu gauza batengatik edo bestearengatik, normalean Euskal Herrira bizitzera etortzen diren heldu gehienek gaztelera euskara baino azkarrago ikasten dutela. Hori horrela izanik, Goierrin, euskarak duen garrantzia adieraztea ezinbestekoa ikusten dugu. Horregatik, saio batean euskararen gaia jorratzeaz gain, lehen egunetik aurkezpenak euskaraz egiten erakusten zaie eta egun guztietan errepikatuz, saioak amaitzean, gutxienez agurrak eta aurkezpenak ondo egiten jakingo dute. Esan behar da, halaber, aurrekoetan, saioen ondoren batzuk euskara ikastera joan direla euskaltegira.

## 7.2.- ONGI ETORRI HARRERA INSTITUZIONALA

Herritar berriak herrira bizitzera etortzen direnean, herrian ondo artatuak direla adierazteko keinu instituzionala egingo da udaletxeko batzar-aretoan alkate zein zinegotzien eskutik. Harrera hori urtean behin edo bitan egingo da, Ordiziako festen bueltan bat eta sei hilabetera bestea. Ekimen hau, urtean zehar iritsi direnei zuzenduta egongo da.

HELBURUAK:

- Alkateak eta zinegotziek herritar berriei ongi etorria eman.
- Komunitate ezberdinetako ordezkariak ez ezik, herriko beste elkarte eta eragileak ere bertan egotea eta jatorri ezberdineko ordiziarren arteko harremanak estutu.
- Ekimen hau Harrera Protokoloko beste programetara bideratzeko balio izatea.
- Giro atsegina sortu.

Ekimen hau komunitate ezberdinen arteko harremanak sustatzeko testuinguru aproposa izan daiteke, horregatik, iritsi berriak eta udal-ordezkariak ez ezik, udaleko beste sail batzuetakoak, iritsi berrien komunitateko ordezkariak, itzultzaileak, herriko zenbait eragile ere, besteak beste, gonbidatuko dira.

Ekimen honi, momentuan-momentuko forma ematen joango ginateke, baina eragileen parte hartzea bermatzeko, zerbait egiteko aukera pentsa daiteke; esate baterako, euskal kulturaren adierazgarria den zerbait. Bestalde, gertutasuna erakutsi asmoz, harrera hori hamaiketako batekin lagunduta joango litzateke.

Ongietorri harrera-ekimen honetara bertaratzeko bideak anitzak izango dira, baina nagusia, alkateak hizkuntza ezberdinetan idatzitako gonbidapen gutuna izango da.

## 7.3.- ONGI ETORRI HARRERA SAIO TXIKIAK

HELBURUAK:

- Euskara ikasteko motibazioa pizten saiatu eta euskara ikasteko zubi lanak egin.
- Oinarrizko baliabideen informazioa eman.
- Herritarren itzultzaile sare bat sortu.
- Elkar ezagutzarako espazioak sortu.

Harrera-saioen barruan, urtean behin harrera integrala dagoen bezala, harrera-saio txiki horiek, informazio zabal hori konprimituta eta laburbilduta eskainiko dute urtean bitan. Posible den heinean, herritar gehiagorengana iristeko, gutxienez saio bat arratsaldean izango da.

Bestalde, harrera-plan bat diseinatzen dugunean, kontuan izan behar dugu herritarrari ematen ari garen horrekin, gure herri ikuskera aurkezten ari garela, gure egiteko moduak, harrera ulertzeko era, kontakizun bat eta abar. Horregatik, Ordizia herri euskalduna izanik eta Goierrin egonik, orokorrean, Harrera Protokoluan euskarak modu anitzetan izango du presentzia.

Euskararen inguruko hausnarketa aurreragoko puntu batean edukiko dugu, baina saio txiki horietan euskarari eta Ordizian hitz egiten diren hizkuntzei aitortza egin nahi zaie. Posible izanez gero, jatorri ezberdinetako pertsonak bilatuko genituzke harrera-saio horiek ematen

laguntzeko eta horiexek itzulpena egiten lagunduko ligukete. Itzultzaileak edota lurralde ezberdinetako ordezkariak izatea ere garrantzitsua izango da arrazoi ezberdinengatik:

- Harreran lurraldeetako ordezkariak inplikaturak izateko.
- Horiak gertutasuna emango diotelako iritsi berriei.
- Hizkuntza ezberdinei aitortza egiteko modua delako.

Edukiaren aldetik, harrera-saio integraleko informazioan oinarrituta, herria ikuspegi zabal batetik aurkeztea izango litzateke xedea. Honekin batera, Ordiziako Agendan dauden ekintzen berri emango da eta bertan parte hartzera gonbidatu.

Eduki horiek azaltzerako orduan, aurkezpena power point edo paper-euskarrian egingo da euskaraz eta herrian hitz egiten diren hizkuntzetan. Horrela, herri ezberdinetako ordezkariak beren hizkuntzan egiteko aukera izango dute.

Ordezkariek horiek aurrez lotuko dira, eta izena ematen dutenen profilararen arabera izango dira. Horretarako, harrera egingo duten ordezkari-talde boluntarioen poltsa bat bilatu beharko dugu.

Beraz, beste saioetan UHSkoak emaileak diren bezala, saio horiek aniztasun- eta migrazio-teknikariak eta lurralde ezberdinetako herritarrek emango lukete.

Kontuan izan behar dugu, etortzen diren zenbaitzuek euskara eta gaztelania ez dutela ezagutuko, beraz, saio horiek horiengana iristeko aukera bat izango dira, beraien jatorrizko hizkuntzako ordezkariak izango ditugulako.

## 8.- HARRERA TALDEAK

HELBURUAK:

- Iritsi berria eta harrera-taldeko kideen artean ezaugarri komunak izatea (adina, sexua...), iritsi berria herriko batzuekin identifikatuta senti dadin harrerako lehen fasean.
- Denbora batez, iritsi berriarentzat harrera prozesuan erreferentziatzeko pertsonak eduki.
- Adinaren, sexuaren edo bakoitzaren ezaugarrien arabera, azpiegitura eta berriazko baliabideak ezagutzera eman.
- Jatorri ezberdinetako ordiziarren artean elkar ezagutzarako espazioak sortu.
- Euskara komunikatzeko hizkuntza izatea eta iritsi berriek ez badakite, euskararen garrantzia ikusarazi.

Kontutan izanik iristen diren pertsonen profila ezberdinak direla, interesgarria ikusten da, iritsi berriek beraien ezaugarriak betetzen dituzten pertsonak artatuak izatea, modu honetan, harrera ere, pertsona horien profilerara egokituko baita.

Harrera kolektiboa sustatu asmoz, harrera batzuk taldean egitea oso interesgarria ikusten da, etorri berriek, lehen momentutik, pertsona ezberdinak ezagutzen dituztelako eta hau aurrera begirako ibilbidean oso garrantzitsua izan daiteke erreferentzia ezberdinak sortzeko.

Harrera-talde horiek herriko azpiegiturara bisita gidatuak antolatuko dituzte eta esan bezala, ibilbidean, etorri berrien profilerara egokituko diren baliabideei erreparatuko diete. Horrez gain, hilabete batzuetan zehar harrera-talde horiek enbaxadorearen figura hartuko luke iritsi berriarentzat edo berrientzat erreferente moduan (bat baino gehiago izan daitezke iritsi berriak).

Ordiziako Jatorri Aniztasuna Zenbakitan 2021 txostenean ikus daitekeen moduan, jatorria beste lurralde batean dutenen seme-alabek % 31 osatzen dute. Horrek esan nahi du, 0-17 urte bitarteko ordiziarrek haur eta nerabeak dituzten familietako hamarretik hiruk jatorria Euskal Herritik kanpoan dutela. Adin tarteen sailkapena egiten badugu, 0-5 adin tartekoek hamarretik ia lauk, jatorria Euskal Herritik kanpoko familietako haurrak dira, 6-11 urte bitarteko ordiziarrena % 34 eta 12-17rena % 25.

Adina	Ordizia	EH-n jaiok espainiar nazionalitatearekin	% bere adinarekiko	EH-n zein beste lurralde batean jaiok espainiar nazionalitaterik gabe	% bere adinarekiko
0-5 urte	560	354	% 63	206	% 37
6-11 urte	679	448	% 66	231	% 34
12-17 urte	737	553	% 75	184	% 25
<b>Guztira 0-17 urte</b>	<b>1.976</b>	<b>1.355</b>	<b>% 69</b>	<b>621</b>	<b>% 31</b>

Hori horrela izanik, berriazko premia ikusten dugu haur eta nerabeen kolektiboari erreparatzea, horiek baitira, duten adinarengatik, premia gehien izan dezaketenak herriko ezaugarriak ezagutzeko zein adineko herritarrekin harremanak eraikitzeko. Beraz, hasteko, harrera-talde horiek haur eta nerabeak izango dituzte ardatz.

Harrera-taldeek honako eginkizunak izango dituzte:

- Iritsi berriari baliabideetarako bideak erraztea, taldeetara laguntzen hurbilduz (kirol-elkartera, adibidez).
- Tarteka iritsi berriak nola sentitzen diren galdetu, konfiantza eman.
- Kuadrillarekin egiten diren zenbait planetara gonbidatu, edota zerbait berezia egin beraiekin.
- Azpiegiturretara eta baliabide interesgarrietara bisita gidatua prestatu.

Hizkuntzaren trataerari dagokionez, harrera-talde horretan euskaraz dakitenen masa kritikoa garrantzitsu bat egongo da; horrela, gutxienez, % 80ak euskara ondo menperatu beharko du. Modu honetan, egoera balitz % 20ak ez duela ondo menperatzen, azken horientzako espazio natural bat sortuko litzateke, eskolaz kanpo, euskararen presentziak berriazko garrantzia duena eta horrek, euskararen normalizazioari bultzada emango lioke. Gainera, iritsi berrientzat, lehen momentutik, ikastetxeek kanpoko euskarazko erreferenteak edukiko litzuzke. Talde horrek ere, iritsi berriek euskaraz ez dakitenean, euskaraz hitz batzuk erakusteko ardura izango luke.

Harrera-taldeak programa aurrera eramateko, UHSko zenbait eragileren artean landuko da, esate baterako, ikastetxeak, horiek baitira iritsi berri gazteenentzat eta haien familientzat integrazio eremu garrantzitsu edo naturalena, gazteria, kale-hezitzaileak eta gazteekin erlazionatuta dauden eragile aproposak. Ildo honetan, atal hau ez da gehiegi zehaztu nahi; izan ere, alde batetik, aipatutako eragileen artean proiektua sortzea interesgarriagoa ikusten da, baina bestetik, proiektua emana izan beharrean, denona egiteko aukera eskaini nahi da. Gainera, nerabe eta gazte horiei protagonismoa eta ahotsa eman nahi zaie.

Hasiera batean behintzat, nerabeei harrera egiteko talde horiek herrira begirako ekimen bezala planteatzen dira, partaideak edozein ikastetxetakoak izanik. Horregatik, garrantzitsua izango litzateke talde horiek ikastetxe ezberdinen artean osatzea (lau eta sei pertsonakoak): alde batetik, helburuan adierazi bezala, iritsi berriek erreferentzia gehiago izateko, eta bestetik, iritsi berria edozein ikastetxetan matrikulatuta egonik ere, beti izango duelako bere ikastetxeko erreferentziaz gain, herriko beste batzuk.

Esan behar da, halaber, aurrera begira, talde horiek beste kolektiboei bideratuta egotea aurreikusten dela, esate baterako, emakumeei, familiei... Baina oraingoan, martxan jartzeko orduan, talde honetako profileen ardaztuko gara.

## 9- GAI ANITZEKO SAIOAK

Nahiz eta denbora aldetik iritsi berri bati eman dakioken saio bat izan, edozein herritarri edozein unetan eman daitekeen programa bat da. Honekin, harrera-fasetik ordiziar bihurtzeko hurrengo urratsa eman nahi da.

Saio horiek dira mugimendu eta eduki aldetik aniztasun gehien edukiko duten programa.

### HELBURUAK:

- Eguneroko bizitzarako baliagarriak izan daitezkeen ohar eta aholkuak eskaini.
- Herriko araudi edo aldaketen inguruko informazioa eman.
- Urtean zehar programa bat osatu.
- Iritsi berrientzat ez ezik, herritar ororentzat baliagarria izan daitekeen informazioa eman.
- UHS indartu modu bikoitzean: alde batetik, harrera-saio hauetara datozenei informazio zehatza emanez, eta bestetik, erabiltzaileak programa hauetara bideratuz.

Harrerako gai anitz horiek formatu dinamiko bat izango dute, eta beharrak eta ideiak sortzen doazen heinean programatzen joango dira. Gutxienez hilabete bat lehenago bidali beharko dira proposamenak. Komunikazio aldetik, UHSko eragile guztiek informazioa eguneratuta edukiko dute deribazioak egin ahal izateko; beraz, barne-komunikazio on bat diseinatzea erronka garrantzitsu bat izango da.

Idea da, saio horiek informazio "pilula" batzuk izatea, ordu beteko saio arinak, herritarrei baliagarriak izango zaizkien dosi txikiak eta bizikidetzaren norbanakoaren autonomiarako lagungarriak. Horregatik, saio horiek edukiz betetzeko, Udal Harrera Sareko eragile guztien inplikazioa ezinbestekoa izango da, horiek izango baitira, alde batetik, beraien alorreko informazioa eskainiko dutenak eta, bestetik, beraien erabiltzaileak, beharren arabera, saio hauetara bideratuko dituztenak.

Bestalde, UHStik kanpo, oro har, gizartearen zein herrian ematen diren zenbait aldaketen berri ere adieraz daitezke, gai horietan espezializatuak diren eragileengana joz.

Atal honen edukia hobeto ulertzeko, zenbait adibide jarriko dira, baina garbi utziz, orientagarriak direla. Honako hauek izango lirateke saio horietarako zenbait eduki: zaborraren kudeaketa, argi indarraren igoeraren ondorioak eta nola erreparatu aurrezpenari, covi19ari buruzko informazio edo kanpaina zehatzen bat, TISaren ezaugarriak eta larrialdien kudeaketa, kontratu eta nomina baten interpretazioa, ikasketa eta lan-ibilbide on baten garrantzia, sailen bateko proiektu baten aurkezpena (adibidez, Euskaraldia), elikadura osasuntsu baten garrantzia adin txikikoengan, euskararen garrantzia gure herrian, herriko dinamiketan parte hartzeko bideak, indarkeria ezberdinak gertatzen direnean eman daitezkeen pausuak, herriko zenbait elkarteren aurkezpena bertan parte hartzera gonbidatzeko, eta abar.

Saio horiek, herritar orori egokitzeko, ordutegi ezberdinak eskainiko dira goizez, arratsaldez eta beharrezkoa denean, asteburuan.



Kontziente gara zailtasun handiak egon daitezkeela hilabete oro egutegi bat osatzeko eta jendea saioetara etortzeko, baina edukiekin eta ordutegiarekin asmatzea lortuko bagenu, informazio praktikoa modu arin batean emateko aukera izango genuke eta horrek plan hau asko indartuko luke.

Saio horiek martxan jartzeko, aniztasun-teknikariak UHSko eragile guztiei proiektua aurkeztuko die eta bertan parte hartu nahi duten galdetu. Dena martxan jarrita, eragile bakoitzari beraien iritziz praktikoa izan daitekeen gai bat pentsatzeko eskatuko zaio, eta hurrengo hilabeteko egitarau bat egingo du Aniztasun Sailekoak (saio hori proposamena egin duenak emango luke). Esan behar da, ez dela beharrezkoa hilabetea ekintzaz betetzea, paraleloki, Harrera Protokoloko eta elkarbizitzarako beste hainbat ekimen egongo direlako. Baina programa horrek, espazio bat sortzeko aukera ematen du informazio interesgarri hori guztia partekatzeko eta bide batez, jatorri ezberdinetako ordiziar ezberdinek gune hori elkarbanatzeko.

Bestalde, saio horiek edukiaren arabera, formatu txikia izango dute; alegia, helburua ez da beti jendez lepo egotea, baina bai taldea osatzeko minimo batzuk egotea. Horregatik, saio hauetan parte hartzeko, beti alde aurretik izena ematea nahitaezkoa izango da eta kudeaketa horretaz Aniztasun Saila arduratuko da.

Gorago aipatu bezala, Aniztasun Saileko teknikaria UHSaren eta erabiltzaileen arteko bitartekoa izatea oso garrantzitsua da pertsonak ezagutzeko, harremanak egiteko eta, gertutik ezagututa, beste programetara deribazioak egiteko.

## 10.- PROGRAMA TRINKOAK

Programa trinkoak ahalduntzearekin lotutako programak izango dira. Bereziki, jatorria beste lurralde batean dutenei bideratuta daude, eta migrazio prozesuen ondorioz pairatu ditzaketen hutsuneei erantzuna eman nahi diote.

Programa horiek diziplina anitzeko talde batean landuko dira (berdintasuna, ongizatea, aniztasuna, esku-hartze familiarra...), bertan aztertuko baitira atzerriartasun legearengatik, bertako hizkuntzak ez ezagutzeagatik edota beste hainbat egoerarengatik, egoera zaurgarrian egon daitezkeen pertsonak zein behar dituzten, eta horiei egokitutako saioak antolatuko dira.

Oraingoz garrantzitsu jo dugun gai bat da, lurralde batetik bestera emigratzeagatik haurrak senide batzuen ardurapean utzi behar izan dituzten emakumeek jasaten duten min bikoitza; alde batetik, haurrak utzi behar izateagatik, eta bestetik, egoera hobetuta, berriro ere haurrak ziren nerabeekin berrelkartzen direnean. Dolu hori lantzeko eta familia-harremanak erreparatzeko saio trinko batzuk ematea proposatzen da.

Saio trinko horiek urte beteko aurreikuspenarekin egingo dira beharrak aztertu eta aurrekontu bat landu ahal izateko.

Ekimen hau Harrera Protokoloren barruan kokatzeak harrerari ikuspegi luze eta zabal bat ematen dio, lehen fasekin baino urutiagoko begirada emanez.

## 11.- FAMILIA KIDEA

Herrian dugun jatorri aniztasunaren ispilu dira ikastetxeak. Hori dela eta, aukera paregabea dugu jatorri ezberdinetako familien arteko harremanak sustatzeko.

Familia Kidea egitasmoaren bitartez, ikastetxe bateko eta, posible den heinean, gela bereko bi familia, bat jatorri euskalduna duena edota jada herrian errotuta dagoena eta bestea jatorria atzerrian duena, elkartuko dira eta bidelagunak izango dira ikasturte batean zehar. Horrela, jatorri euskalduna duten edota jada herrian errotuta dauden familiek ikastetxeko kodeak, funtzionamendua eta herriko ohiturak erakutsi eta baliabideetarako sarbidea erraztuko diete iritsi berriei.

Ekimen hori 2018tik 2021era, hiru ikasturtez egon da Ordizian martxan eta oso ondo baloratu izan dute parte hartzaile guztiek, horregatik proiektuari jarraipena ematea erabaki da, proiektua birformulatuta.

Horrekin batera, erabat osagarriak ikusten dira 'Familia Kidea' eta 'Harrera Taldeak' atalak, nahiz eta bakoitzak profil ezberdinetako hartzaileei zuzenduta egon. Bestalde, ikastetxeek dituzten Harrera Protokoloak azter daitezke eta ikastetxeetatik kanpo dauden eremuei herri ikuspegia txertatzeko aukera eskaini.

## II. FASEA: HERRITARTZE IBILBIDEA

## 12.- ELKAR EZAGUTZA

Elkar ezagutzarako espazioek izugarritzko indarra daukate herritarrak modu informalean biltzeko aukera ematen dutelako, maila berean espazioa elkarbanatzeko aukera. Ordizia Kolore izeneko espazio hau oso malgua da, forma ugari ditu eta egokitze gaitasuna ere bai.

Ordizia Kolore gune hau, 2012an prozesu parte-hartzaile batetik sortu zen. Jatorri ezberdinetako ordiziarrek elkartzea izan zen prozesu horretan kontuan izan zen ezaugarri nagusia.

Hilean behin edo bi hilez behin biltzen da larunbat arratsaldeetan, ordu hori baita gehienek libre duten momentua. EH eta beste jatorrietan jaiotako pertsonen bilgune bat da. Bertatik jende asko pasatu da eta herriaren errealitatearekin batera, "de paso"-ko jende ugari ere egon da; dena den, badago hasieratik mantentzen den jendea eta pixkanaka batu eta finkatu dena ere bai. Bilera bakoitzean 15 bat lagun biltzen gara eta hainbat ekintza burutu dira urte hauetan zehar: trukeak, hitzaldiak, irteerak, solasaldiak, afariak, bazkariak, bilerak, pelikulak eta abar. Talde horrek ez du elkarte izaerarik, lidergoaren papera migrazio- eta aniztasun-teknikariaren gain dago, baina aurrera begira, izaera autonomo bat hartzea gustatuko litzaiguke, taldekideak izanik antolaketa eta kudeaketa inizatiba hartuko dutenak. Aitzitik, momentu honetan dauden pertsonak egonik, antolatzeko modu honek nahiko ondo funtzionatzen duela ikusten da, partaideen artean talde honetan egin nahi dena adostuz (pandemia dela eta, azkeneko aldiz, 2020ko otsailaren 1ean egin zen bileran ikus daiteke).

Bestalde, talde hau indartzea estrategikoa da. Arrazoiak:

- herrian aniztasuna lantzeko erreferentzia bat izan daitekeelako,

- jatorri ezberdinetako ordiziarren artean elkar ezagutzeko espazio oso garrantzitsua delako
- herritar bezala ahalduntzeko balio duelako
- informazioa trukatzeko delako
- jendea ezagutzen harremanak sortzen direlako
- ondo pasatzen dugulako

Beraz, ekintza honen bitartez, talde hau indartu, ekintzak bideratu eta herrian, aniztasuna oinarri duen espazio erreferente bat izan nahi du.

Topagune honen bitartez egin ditugun hainbat ekintza honako hauek dira:

- Munduko Egunak antolatu eta horietan parte hartu (E-20, M-8, M-21, M-28, O-17, A-18...).
- Herriko elkarteek eskatzen diguten ekimenetan parte hartu, esate baterako, txosna-batzordeak antolatzen duen pintxo-pote internazionala, Larrunarri Elkarteak antolatzen duen sukaldaritza-lehiaketa eta abar.
- Kulturarteko Irakurketak.
- Goazen Ordizia (paseoak astean behin herriko hainbat elkarterekin).
- Bi hilean behin bilera informalak.
- Jatorri ezberdinetako herritarren arteko solasaldiak.
- Trukerako espazioak.
- Eta abar.

Pandemiak biltzeko maiztasunean eta ekintza-motan aldaketa ekarri du. Dena den, ingurunea ezagutzeko paseoak egiten aritu gara eta horrek taldeari biltzen jarraitzeko aukera eman dio inongo etenik gabe.

#### HELBURUAK:

1.- Elkar ezagutzeko espazioak sortu:

- Ordizia Kolore Topaguneko taldea mantendu eta indartu.
- Kultur astea antolatzen jarraitu.
- Sentsibilizazio kanpainak egin urtean zehar

2.- Aniztasunaren ikuspegia txertatu herriko dinamika eta arlo ezberdinetan.

3.- Eskolaz kanpoko jarduerak.

LH eta DBHko haur eta gazteek eskolaz kanpoko ekintzetan, kirolaz gain, parte hartzeko estrategiak landu, nesken eta mutilen egoera ezberdinak aintzat hartuz.

#### EKINTZAK:

##### 1.1.- Ordizia Kolore Topagunea:

Ordizia Kolore, jatorri ezberdinetako ordiziarren bilgunea da. Bilgune horrek forma ugari ditu, eta harremanak sortu eta herria zein herritarrak ezagutzeko ekintzak lantzen dira.

Ekintza horren bitartez, taldea indartu eta ekintzak bideratzen dira. Herrian aniztasuna oinarri duen espazio erreferente bat izan nahi du taldeak.

##### 1.2.- Kultur astea:

Aniztasuna modu ludiko eta atseginean ospatzeko espazio bat izan nahi du, zeinak herritarrak batzen dituen, kultura ezberdinak ezagutzeko aukera ematen duen eta herriko agendan txertatzen den.

### **1.3.- Sentsibilizazio kanpainak egin urtean zehar:**

Mundu egunak direla, herriko erakunde/elkartek eskatutako ekintzak direla zein Hiri Hezitzailearen bitartez egiten diren ekintzak direla, denen artean, urtean zehar aniztasunean oinarritutako ekintzak egiten jarraituko dugu.

### **2- Aniztasunaren ikuspegia txertatu herriko dinamika eta arlo ezberdinetan**

- Herriko hainbat elkartekin harremanetan jarri eta ekintza bateratuak egin (adib.: pintxopote internazionalista –txosna-batzordea-, Euskal Jaietako sukaldaritza-lehiaketa – Larrunarri Elkarte-; irakurketa multikulturala –eskolak, musika eskola, Oroith Txiki abesbatza eta Ordizia Kolore-, mundu-egunak, hiri hezitzailearen barruan egiten direnak...).
- Herriko agenda begiratu eta aniztasunaren ikuspegia txerta daitezkeen aukerak aztertu.

### **3.- Eskolaz kanpoko jarduerak**

LH eta DBHko haur eta gazteei eskolaz kanpoko ekintzetan, kirolaz gain, parte hartzeko estrategiak landu nesken eta mutilen egoeren ezberdintasunak aintzat hartuz.

## **13.- PREBENTZIO TREBAKUNTZAK**

Jendartea gero eta anitzagoa da zentzu guztietan eta honek paradigma zaharrak hautsi eta berriak eraikitzen eramatean ditu gure herriak. Jatorri aniztasunaren kudeaketa da bereziki, proiektu honen jomugan dagoena eta honek ekartzen dituen aldaketa, zailtasun, aberastasun eta erronka ezberdinei buruz trebakuntza lan bat egin nahi da ardatz honen bitartez.

Hori dela eta, 2014az geroztik ZurrumurrurikEz! Kanpaina jorratzen ari gara gai ezberdinetako hitzaldi, lantegi, solasaldi eta prestakuntza emanaz herritarrei zein UHSko eragileei.

Bestalde, EAEn dagoen zurrumurruen kontrako ZAS! sarean ere parte hartzen du udalak. Horretarako, urtero 1.000 €-ko ekarpen bat egiten dio sareari haren kudeaketa egiteko eta aldizkariak sortzeko.

HELBURUA:

1.- Xenofobia ekidin, aurreiritziak desegin, aniztasunean busti eta kohesioa indartzeko ekimenak landu eta eskaini herritarrei.

EKINTZAK:

1.- Ordiziako Udalak Euskadi mailako sinergiak, baliabideak eta ezagutza aprobetxatuz, EAE mailako ZAS! Sarean txertatu.

2.- Ordizian formazioa, tailerrak eta hitzaldiak eskaini:  
- 3 hilean behin orokorrak

- Urtean behin zerbait erakargarria. Egin diren adibideak: Miren Etxezarreta (UAB-n Doktorea), Arcadi Oliveres (UAB-ko Katedraduna eta Justicia i Pau Elkarteak), Irantzu Varela (Faktoria Lila eta kazetari feminista), Maya Amrae (Islamiar feminista), Xabier Aierdi (EHU), Gorka Moreno (Ikuspegi), Estitxu Eizagirre (Argia), Joseba Zalakain (SIIS), Miguel Pajares (CCAReko lehendakaria,...)
- Urtean behin, behintzat, sarekoei zuzendua
- Berriazko taldeei behar denean.

#### METODOLOGIA:

Alde batetik, formazio ibilbide progresibo bat diseinatu aniztasunaren esparru ezberdinak jorratu ahal izateko. Bestetik, sareko eragileen eta herritarren ahuldadeak identifikatu formazio edo solasaldi egokituak prestatzeko.

#### NORI ZUZENDUA:

- 1.- Sareko eragileei.
- 2.- Herritarrei orokorrean.
- 3.- Berriazko taldeei (adib., familia lagunak, elkarteak —bertso-eskola, antzerki-taldea, erretiratuak, emakume-elkarteak...—).

## 14.- HIRITARTASUNA

Hiritartasuna, izaki politikoaren kontzeptuarekin lotu nahi da hemen. Hau da, egoitza herrian izan eta bertan askatasunez zein autonomiaz mugitzeaz gain, herriko dinamika eta erabakietan eragiteko aukera duen subjektu aktibo-eraldatzailea izateraino.

Puntu honetan agerian geratuko litzateke zein eredu nahi dugun gure herriarentzat eta helburuetan adierazi dugun bezalaxe, *kulturarteko integrazio* baterantz jotzeko lan egingo dugu.

Aniztasunaren ikuspegitik, eta bizikidetzat landu eta kudeatze aldera, oso garrantzitsua da, herritar berriei harrera-plan bat diseinatzeko orduan, bere prozesua honaino iristen dela jabeaztea. Bestela, egoera gutxituan dauden edo zailtasunak dituzten herritarrei, sexua eta adina edozein izanik, ez dizkiegu inoiz baliabideak eta aukerak emango, herritar bezala, beren eskubide eta betebeharrak bere osotasunean garatzeko.

Ardatz hau oso lotuta dago parte-hartzea eta aitortzarekin. Beraz, honetara bideratutako programak edo ekintzak oso baliagarriak izango dira ardatz hau lantzeko orduan.

Puntu honek erronka honetara eramango gaitu: inklusiotik, denon artean herri bakarra osatu, denok barneratzen gaituen herria eraiki eta aberasten gaituzten elementuetan pentsatu beharko dugu. Hausnarketa horrek, ondorengoetan eragingo luke: esparru ludikoan (adib.: festak), aisialdian, elkartzeko espazioetan, paisaia urbanistikoan, janzkera moduan, jatorri aniztasunaren ikuspegia herriko dinamika eta arloetan txertatzea, espazio publikoaren erabilera; adibidez, Ramadanaren bukaera edo bestelako festa-ospakizunetarako eskatzen diren espazioen (frontoia, anexoa,...) erabilera...

#### HELBURUAK:

- 1.- Herritarren artean, aniztasunean oinarrituta, nolako herria nahi dugun pentsatu eta irudikatu.

2.- Udalak, erakunde publiko bezala, kulturartekotasun herriaren aldeko aitortza ireki bat egitea.

3.- Ordizian bizi diren jatorri ugarietako komunitateak eta haien ezaugarriak (hizkuntzak, ohiturak, egun garrantzitsuak...) esparru duin ezberdinetan ikusarazi (prentsan, kalean, museoetan, jai eta festa ezberdinetan, ekitaldietan...).

#### EKINTZAK:

1.- Udal batzordeak, gure herria, kultura artekotasunaren alde dagoela eta horrek ekartzen duen aberastasunak herri hobetoago bat egingo duenaren adierazpen publiko bat egin.

2.- Herriko jatorri ezberdinetako pertsona/talde estrategikoak detektatu, haien lurraldeari buruzko datuak bildu eta proiektuan inplikatzeke proposamena egin. Adib.: x denboran zehar lurralde horri buruzko monografiko bat egin, herriko prentsan azaldu, lurraldeari buruzko hitzaldiak antolatu, jakiak, haien hizkuntzak erakutsi,...

#### METODOLOGIA:

Udal batzordearekin ardatz honen estrategia ondo hausnartu, kontrastatu, sakondu, kanpoko esperientziaren batekin alderatu, laguntza eskatu eta martxan jarri aurretik ondo pentsatu estrategiak eta lortu nahi dena. Horretarako, zenbait bilera egin beharko lirateke.

#### NORI ZUZENDUA:

- Jatorri ezberdinetako herritarrei.
- Udalari.

## I ETA II FASEAK BURUTZEKO TRESNAK ETA AURRE EGITEKO ERRONKAK

### 15.- KOMUNIKAZIOA

Udal Harrera Sare bat sortu nahi badugu eta programen berri eman nahi badugu, nahitaezkoa izango da gure arteko komunikazio moduak lantzea. Komunikazio tresna horrek norabide ezberdinak izango ditu. Alde batetik; barrura begirakoak, non UHSko eragileek deribazioak egin ahal izateko, sortzen diren harrera saioen zein programen berri emango duten. Eta bestetik; harrera herria izateko, herritarrek orokorrean, jakin beharreko informazioa jasotzeko, bereziki, harrera saioetan parte hartuko dutenei begira.

Kanpora begira, herritarrei, oro har, udaletik informazioa helarazteko bideak sortuta daude jada: web-orrialdea, Ordizia Agenda, Whatsapp bidezko zuzeneko mezuak, komunikaziorako telefono-zenbakia... Kanpora begirako honetan, Ongi etorri Ordiziara! baliabide-gida integral bat egitea faltatuko litzateke.

Barrura begira berriz, UHSko eragileen arteko komunikazioa erraztuko duen sistema bat beharko litzateke. Jada, ohikoa den e-posta da komunikazio tresna erabiliena, baina agian, aplikazio bat, Drive bat edo zerbait sortu beharko genuke informazioa bateratuta izan dezagun.

Horrez gain, UHSko eragileek soilik erabil dezaketen barne-gida bat egitea ere proposatzen da, non sail bakoitzeko programa nagusiak adieraziko diren, informazioa ondo emateko orduan denok jakin dezagun sail bakoitzak zer egiten duen.

Komunikazio digital edo paperezkoaz gain, koordinazioa eta balorazioa egiteko, urtean behin edo bitan bilera presentzial bat egin nahi da.

Dena den, erronka nagusia, herritarrak programetara bideratzeko kanalak ondo ehuntzea izango da.

Hori guztia udaleko komunikazio-arduradunekin lantzeko geratuko litzateke.

## 16.- ERRONKAK

Esan bezala, proiektu honetatik ateratzen diren ekimen eta hausnarketa guztiak, bost ardatzen aterkipean kokatzen dira. Norbait ingurunea eta baliabideak ez ezagutzetik, azpiegitura eta baliabideak jarriko dira herriko dinamiketan parte hartzeko eta hortik, ibilbide bat eginez, herriko erabakietan parte hartzeko. Hori guztia prozesu bat izango litzateke iritsi berri batentzat, non ezer ez ezagutzetik, herriko espazio desberdinetan parte hartzera iritsi litzatekeen. Beraz, norbanakoaren ibilbidea norbanakoarena izango da; hau da, bakoitzari, bere behar eta motibazioen arabera, ibilbide propioa egiteko baldintzak eman behar dizkiogu, bakoitzaren behar eta neurrietara egokituta. Pertsona orok ez du ibilbide guztia zertan egin, baina aukera guztiez informatuta egoteko eskubidea bermatu beharko zaio. Beraz, oso garrantzitsua izango da UHSko eragileek, une oro, programen berri izateaz gain, bertan elkarrekin jarduteko gaitasuna izatea.

Esan behar da, aniztasunaren kudeaketak izugarritzko erronkak sortzen dizkiola harrera-gizarteari. Harrera-gizarteak, historikoki eta etengabe, bere egitura, antolakuntza, ohitura eta egiteko moduak egoera ezberdinetara egokitu izan ditu. Kontuan izanik 2021eko urtarrilaren 1ean, ordiziarren % 19 EBn eta EBtik kanpo jaiotakoek osatzen dutela, oraingo honetan ere, horrelako egokitze-prozesu batean murgilduta gaudela esan daiteke.

Gai horiek guztiak, bakarka aztertuz, bakoitzak bere analisi propioa eskatzen du, eta lantzeko orduan, oso garrantzitsua da gai horiei buruz dauden udal-lege eta -planek esaten dutenarekin uztartzea. Hala eta guztiz ere, gai bakoitzaren inguruko hausnarketa sakon bat egin beharrean gaude.

### 16.1.- EUSKARA

Harrera gizarte moduan, euskaratik, herrira iristen direnei, beraiek dakartzaten hizkuntza eta kulturei aitortza egingo zaie. Harrera egiteko ariketa bat lantzen ari garela ulertzen dugu. Izan ere, iritsi berri direnak eta lehendik gaudenok izango gara herri hau eraikiko dugunak.

Hizkuntza-aniztasunaren ikuspuntutik, euskarak ikusgarritasuna eta tokia edukitzeko, aitortza bikoitz horren erdian egon behar du nahitaez.

Aitortza balio eraikitzaileztat jotzen dugu "bestea" ikusteko eta errekonozitzeko gaitasuna duelako. Horregatik, programa guztietan aitortzaren presentzia oso garrantzitsua da aniztasunaren norabide ezberdinak kontuan hartu ahal izateko.

Horrekin batera, aniztasunari begiratze horrek, ezinbestean behartzen gaitu “ezberdin” izate hori balioestera eta herritarren artean, aniztasunean hezteko mekanismoak jartzera. Hori dela eta, euskara harreraren erdigunean jarri nahi dugu.

Bestalde, gure iritziz, euskara integrazio bitarteko eraginkorra da eta, batez ere, aukeraberdintasuna herritar guztien helburua izanda, etorkizunean bertako hezkuntza-sistematik igarotako ordiziar guztiak izango dira euskaldunak. Soilik kanpotik etorritako herritarrak izango dira bertako hizkuntza ezagutzeko zailtasun berezia izango dutenak; horrek beraien laneratze- eta sozializazio-aukerak mugatuko ditu.

Harrera bat diseinatzen dugunean, nolabait, herrira iristen denari nor garen, zer garen, zer nahi dugun, gure mundua ikusteko modua, nola ikusten dugun bestea eta abar adierazten ari gatzazkio. Horregatik, euskara, ikuspuntu horretatik, euskal izaeraren planora eraman nahiko genuke. Hau da, kontziente izan behar dugu gure hitzekin mundua ikusteko modua adierazten dugula, baina euskal hitzak jartzen ez ditugunean ere, nor eta nolakoak garen adierazten ari gara eta hori harrera-plan on batean ikus daiteke. Honekin esan nahi dugu euskarak beste baliabide batzuk ere izan behar dituela berarengana iristeko eta jakin behar dugula adierazten euskarak ate bat zabaltzen duela eskaintzen ari garen horretan guztian sartzeko. Beste modu batean esanda, euskarari buruzko pertzepzio positibo bat lantzea ere oso garrantzitsua izango da, bereziki, euskara ikasiko ez duten horiek euskarari buruzko jarrera baikorra izan dezaten.

Gure herriko errealitatera jaisten bagara, hizkuntza-aniztasunari dagokionez, herrian zenbat hizkuntza hitz egiten diren ez dakigu, ez daukagu eroldan horri buruzko galderarik jasota eta hor, hizkuntzen ikuspegitik, herritarren inguruko informazio garrantzitsu bat galduta daukagu. Beraz, eroldan alta ematerako orduan, ikasketez gain, bakoitzak hitz egiten dituen hizkuntzak jaso nahi ditugu, lehen hizkuntzak eta dakizkiten hizkuntzak bereiziz.

Sinesmenei so egiten badiegu, oraindik ere, gaztelaniarekin munduan zehar ibil gaitezkeela eta euskara gutxi batzuentzako dela barneratuta dago zenbait euskaldunen artean. Horrela esanda nahiko gordina geratzen dela esan daiteke, baina oraindik ere baliabide publikoetatik gazteleraz alfabetatzeko joera daukagu euskaraz beharrean. Beraz, agian hausnarketa bat egin beharko genuke etorri berriak nola alfabetatu nahi ditugun erabakitzeke eta zein baliabide jarriko ditugun horretarako. Dena den, hausnarketa horretan kontutan izan behar dugu gure nahietatik haratago zein ondorio dituzten hartzen ditugun erabakiek, ea bitarteko baliabideak jarriko diren gure helburuetara iristeko. Izan ere, ondo asmatzen ez badugu, egoera zaurgarrian dauden pertsonak are gehiago kaltetu ditzakegu.

Etortzen direnen ibilbideak, denborak, lehentasunak eta nahiak errespetatu behar direla kontuan izan behar dugu. Horregatik, bakoitzari egokitutako hizkuntza ibilbide bat diseinatzeak ere itxaropenak eta etsipenak ekiditeko balio dezake. Gainera, modu horretan, “dena vs ezer ez” dikotomiak saihestu daitezke, eta denok zerbait irabazi. Ondorioz, beharren eta interesen nolabaiteko mapa bat edukitzeak asko erraztuko luke landu nahi ditugun politikek arrakasta izateko.

Halaber, ezinbestekoa da egiten ditugun zenbait ekimen kolektibotan (esate baterako harrera-taldeetan, gazteen artean) euskararen erabileraren masa kritiko bat bermatzea. Adin horretako pertsonentzat, oraindik ere, euskara ezinbesteko tresna bat izan daitekeelako haien bizitza-ibilbidean (ikasketak, lana, sozializazioa,...). Gainera, talde horietan euskara erdigunean jarrita, euskara komunikazio-tresna bat baino gehiago izan daiteke, lagunekin egoteko modu bat, ikasketetan aukera gehiago zabaltzeko modu bat, beste espazio batzuetan sartzeko giltza bat, eta abar.

Beraz, hemen adierazten den guztiarekin, maila ezberdinetan eta eragile ezberdinekin hausnartzeko bidea ireki nahi da, herri mailako ikuspegi bat finkatzeko eta horretarako baliabideak jartzeko.



## 16.2.- ESPAZIO PUBLIKOAK

Espazio publikoen erabilera ere hausnartzeko gai garrantzitsu bat da, izan ere, nahiz eta historikoki espazio hauek behar eta pentsamendu berrietara egokitzen joan diren, ziurrenik ez gara egungo aniztasunak eskatzen dituen beharretara egokitu.

Horregatik, jatorria beste lurralde batean duten komunitateetara gerturatzea oso interesgarria izango litzateke, haien beharrak jaso eta espazio publikoaren birplanteamendu bat egiteko.

Esate baterako, errolda datuetako jatorriei begiratzen badiegu, musulmanak izan daitezkeen lurraldeetako kideak zenbatzen baditugu (kalkulu hau ez dago kontrastatuta, suposizio batean oinarritzen da), % 3,8k ehorzketa islamikoaren erritoaren bitartez egin beharko luke ehorzketa eta gure hilerriak ez daude horretara egokituak. Beraz, honen inguruko hausnarketa bat egin beharko genuke.

Bestalde, hainbatek ezin ditu pribatuak diren ospakizunak (ezkontzak, haur baten jaiotza,...) taldean ospatu espazio faltarengatik. Lehendik hemen geundenak jatetxeen bitartez edota elkarte gastronomikoen bitartez estaltzen dugu behar hau, aitzitik hainbat herritarrek hain garrantzitsuak diren festak egitea ezinezkoa dute. Beraz, honek ere lanketa bat eskatzen du dauzkagun baliabideak berrerabiltzeko edota arauak egokitzeko.

Kirolak ere komunitateak batzeko espazioak eskaintzen ditu. Hori ere aztergai dagoen zerbait da, alegia, gure azpiegiturak behar ezberdinetara egokitzea.

## 16.3.- BOLUNTARIOTZA

Ordiziako 'Harrera Protokoloa eta Herritartzeko Ibilbide Integrala' izeneko proiektua aurrera eramateko, ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea; hori gabe, protokolo honek izugarritzko zailtasunak izango ditu aurrera egiteko.

Udal Harrera Sareko eragileen artean, esan bezala, erakunde ezberdinak ez ezik, banakako eta antolatutako herritarrak egongo dira. Esate baterako, Harrera Taldeak programa ez da ezer izango harrera egiteko pertsonarik ez badago. Horregatik, proiektu honetan giza baliabideei berariazko balioa ematearen arrazoia da, herri bat transformatu nahi izatekotan, herritarrek beraiek izan behar dutela subjektu eragileak, eta hori lortzen den heinean, oinarrizko aldaketa bat etorriko da.

Oso garrantzitsua da, halaber, Harrera Protokoloarekin baino, elkar ezagutzarekin eta oraintxe adierazi dugun parte-hartzearekin zerikusia duten beste hainbat programa sortzea. Jatorri, adin, sexu eta beste hainbat ezaugarri ezberdinetako pertsonak batzeak eta "zertarakoak" sortzeak aukerak emango dizkigute herritarrak konektatzeko eta herritarrak haien artean enpatia izateko eta kohesionatzeko.

Hori dela eta, belaunaldien arteko harremanak eraiki eta erreferentziazko pertsonak sortzeko, denborarekin, "aitona-amonen" edo "osaba-izeben" proiektua sortzea proposatzen da. Izan ere, bereziki jatorria beste lurralde batean duten familietako haurrak eta nerabeak, oso gertukoak diren figura batzuk eduki gabe hezten ari dira, familia-unitatetik kanpo dauden beste "etxeakoak" diren erreferente batzuk gabe; proiektu horrek asko aberastu ditzake bai haur edo nerabea zein "aitona-amonak".

Bestalde eta ildo berean, "Mentoretza"ko figura bat ere sortzea aberatsa litzateke. Kasu honetan, ikasketekin erlazionatuta egongo lirateke harreman zubiak. Unibertsitateko ikasle bat, ikasturte batean zehar, astean behin ikasle batekin geratuko litzateke etxeako lanen bat

egiten laguntzeaz gain, paseoren bat emateko. Proiektu hau oso garatuta dute SOS Arrazakerian Urretxindorra proiektuarekin.

Azken bi proiektuak garatzeke geratuko lirateke, baina boluntarioen figuraren garrantzia eta horrek herriari ekarriko liokeen aberastasuna adierazi nahi izan dira hemen.

## 17.- METODOLOGIA ETA BALORAZIOA

Plan hau aurrera eramateko, komunikazioa, eragileen inplikazioa, herritarren parte-hartzea eta abar ehuntzeko modua adieraziko da ondorengo lerroetan.

### PROIEKTUAK EHUNTZEN

Lehenik eta behin, plana osatu, adostu eta onartu egingo da (1) talde motorrean zein (2) udal-batzordean. Behin gai hau itxita, Plana sozializatu egingo da modu eta maila ezberdinetan:

- (3) Udal Harrera Sareko eragileei aurkezpena egingo zaie. Hasiera batean, Ongi etorri Ordiziara! saioetan parte hartzen dutenei eta lehentasunezko ekintzen arabera, eragile gehiagori. Pixkanaka sare hori zabaltzen joango da eragile ezberdinekin.
- (4) Herrian ezagutzera emango da hedabideen bitartez.

Plana sozializatuta egonik, proiektu ezberdinak aurrera eramango ditugu:

1. UHSko eragileekin batzarra:
  - a. Barne-gida eratzeko oinarritzko informazioa jaso.
  - b. Gai anitzeko saioetarako ideiak jasotzen hasi.
2. Errolda:
  - a. Erroldako alden erregistroa sistematizatu Aniztasun Sailarekin.
  - b. Hizkuntzen informazioa txeratzeko aukera aztertu.
  - c. Koordinazio-sistemak sortu lehen arretarekin.
3. Komunikazioa:
  - a. Saioetara gonbidapenak egiteko, gutunak sortu ekintza bakoitzera egokituta eta hizkuntza ezberdinetara itzuliak.
  - b. Saioen difusiorako kartelak diseinatu.
  - c. Sare sozialak erabili informazioa zabaltzeko (udaleko komunikazio-arduradunarekin).
  - d. Herrian puntu ezberdinak identifikatu, bereziki, jatorria beste lurralde batean duten herritarrengana iristeko.
  - e. Herritarren biderapenak sistematizatu.
4. Informazio-saioak:
  - a. Edukiak landu eta datak planifikatu.
5. Gai anitzak:
  - a. Hurrengo bi hilabeteetako programak zehaztu.
6. Jatorri ezberdinetako komunitateak identifikatu:
  - a. Identifikaziorako irizpideak landu.
  - b. Plana aurkeztu eta inplikatu proiektuan modu ezberdinetan.
  - c. Komunitate ezberdinetako egun garrantzitsuak identifikatu.

Honekin batera, kronograman azaltzen diren ekintzak dagokien momentuan egiten joango dira.

2022ko urte bukaera aldera, abenduak 18, adibidez, urtean zehar egindako ekintzen amaiera bezala, herrian zabalduko den adierazpen instituzionala egingo da. Modu honetan, Planari zilegitasuna eman nahi zaio; alde batetik, edukiz betetako proiektua delako, eta bestetik, parte hartzen duten eragileei eta herritarrei aitortza egiteko eta hurrengo urteei begira, sarea zabaltzen joateko.

Bestalde, ekintzen balorazioa egitea oso garrantzitsua da proiektua nola doan modu errealago batean ezagutzeko eta aldaketarik egiteko premia egonez gero, proposamenak egiteko. Baina, ez dugu ahaztu behar proiektu hau pertsonak osatzen dutela eta oso zaila dela jakitea pertsona bakoitza edo taldea zein nolako eraldaketa ematen ari den.

Horregatik, ekintza bakoitzaren ondoan adierazle batzuk jarri ditugu ebaluazioa errazagoa izan dadin ("ekintzen fitxa" atalean ikus daiteke), baina kontuan izan behar dugu, oro har, errazagoa dela balorazio kuantitatiboak egitea kualitatiboak baino.

Programa gehienek memoria propioa izango dute, horiek banan-banan azertu ahal izateko.

Harrerarekin lotutako saioetan, oso garrantzitsua izango da ondorengo adierazleak aztertzea:

- Zenbat pertsona pasa diren harrera-saioetatik eroldan alta eman dutenekin alderatuta eta zein ezaugarri dituzten (jatorria, sexua eta adina).
- Saioetatik pasa direnei ebaluazio pertsonal bat egin.
- Zenbat pertsona pasa diren gainerako zerbitzuetatik.

Aurreragoko balorazioetan, instalatu direnen ibilbidea nolakoa izan den aztertzea ondo legoke, baita zein komunikazio-mekanismo izan diren arrakastatsuenak prozesuan zehar.

Bestalde, ekintza puntualak egiteko garaian, bereziki elkar ezagutza eta prebentzio-trebakuntzen baitan burutzen direnak, balorazio orri bat egingo da eragile arduradunen artean.

## 18.- EKINTZEN FITXAK

Planean jasotako jardueren fitxak adieraziko dira ondorengo orrialdeetan. Fitxa hauetan, ekintza bakoitzeko laburpen txiki bat, ekintza bakoitzaren helburuak, balorazio adierazleak, ekintzaren arduradunak eta eragile inplikatuak, lehentasuna, inplementazio denbora, baliabide teknikoak eta aurrekontuak adieraziko dira.

A-0.1	0. LAN ADMINISTRATIBOA
Ekintza	<b>0.1.- Diru laguntza eskaera eta zuriketak</b>
Nori zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideetako eta Kultura Demokratikoko Zuzendaritza Nagusia.</li> <li>- Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.</li> </ul>
Deskribapena	- ORDIZIA KOLORE. Ordiziako Udal Harrera Sarea eta ONGI ETORRI EUSKARARA!. Euskara errefortzu saioak etorri berrientzat programatzeko diru laguntza eskaera eta zuriketa.
Helburua(k)	- Ordizian aniztasuna kudeatzeko egiten diren programak diruz laguntzeko eskaerak egitea
Prozesuaren ebaluazioa	- Erakunde bakoitzera egiten diren diru laguntza eskaera txostenak
Balorazioa egiteko adierazleak	- Erakunde bakoitzetik jasotzen den diru kopurua
Arduraduna	Migrazio eta Aniztasun Teknikaria
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Alkatetza</li> <li>- Ongizate Burua</li> <li>- Idazkaritza</li> <li>- Kontu-hartze Saila</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2021-2022-2023-2024 Deialdiak ateratzen direnean
Ekintza burutuko den tokia	
Baliabide teknikoak	- IZAN Komunitate eta Esku-hartze familiarra S.L. enpresaren kontratazioa
Aurrekontua 2022	Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	

A-0.2	<b>0. LAN ADMINISTRATIBOA</b>
Ekintza	<b>0.2.- Herritarrak artatu</b>
Nori zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrei orokorrean</li> <li>- Erakunde eta elkarte ezberdinei</li> </ul>
Deskribapena	Herritarrak artatu: orientazioa, deribazioak, aholkuak, entzun, proposamenak jaso, eta abar.
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Jatorri aniztasunarekin lotuta dauden gaiei buruz, herritarrek dituzten kezka, proposamen eta abar. jaso.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Urtean zehar aniztasun Sailarekin harremanetan jartzen diren pertsonak</li> </ul>
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Artatzen diren pertsonen kopurua eta beharrak jaso (ezaugarriak bereiziz: jatorria, sexua, adina).</li> <li>- Jasotako eskaerak presentzialak zein beste bideak bildu</li> </ul>
Arduraduna	Migrazio eta Aniztasun Teknikaria
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- UHS-ko eragileak</li> <li>- Jarraipen Taldea</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2021-2022-2023-2024 Urtean zehar
Ekintza burutuko den tokia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aniztasun Teknikariaren bulegoa eta beste hainbat espazio (e-posta, telefonoz, bestelako espazioak)</li> </ul>
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- IZAN Komunitate eta Esku-hartze familiarra S.L. enpresaren kontratazioa</li> </ul>
Aurrekontua 2022	Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	

A-0.3	<b>0. LAN ADMINISTRATIBOA</b>
Ekintza	<b>0.3.- Kanpo erakundeekin harremanak</b>
Nori zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eusko Jaurlaritzako Migrazio eta Asilo Zuzendaritza</li> <li>- Foru Aldundiko Giza Eskubideak Zuzendaritza</li> <li>- Migrazio Teknikarien Sarea</li> <li>- ZAS! Sarea</li> <li>- Begirune Fundazioa</li> <li>- Migrazioarekin lotuta dauden erakunde eta elkarteak</li> <li>- Etab.</li> </ul>
Deskribapena	Ordiziako Aniztasun eta Migrazio proiektua herrian, Goierrin, Gipuzkoan zein EAE mailan dauden beste erakundeekin harremanak eta sinergiak sortzeko talde bilerak dira.
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Aniztasunarekin eta Migrazioarekin lan egiten duten eragileekin harremanak sortzea.</li> <li>- EAE mailan gai honekin lotzen diren proiektuak ezagutzea.</li> <li>- Gaiaren inguruan formazioa jasotzea</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	- Urtean zehar egiten diren bilera ezberdinak
Balorazioa egiteko adierazleak	- Urtean zehar egin diren bilerak eta jorratu diren gaiak jasotzea
Arduraduna	Migrazio eta Aniztasun Teknikaria
Eragile inplikatuak	- Jarraipen Taldea
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2021-2022-2023-2024 Urtean zehar
Ekintza burutuko den tokia	- EAE mailan.
Baliabide teknikoak	- Garraio eta dieten ordaintzea
Aurrekontua 2022	Ekintza + Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	

E-1	1. ARDATZA: HARRERA
Ekintza	<b>1.1.- Ongi etorri Ordiziara! Informazio saio integrala</b>
Nori zuzendua	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iritsi berri diren herritarrei</li> <li>- Lehendik zeuden herritarrei</li> </ul>
Deskribapena	<ul style="list-style-type: none"> <li>- UHSko eragileei proposamena eta egutegia luzatu</li> <li>- Partaideei informazioa helarazi gutunez eta UHSaren bitartez</li> <li>- Partaideei elkarrizketak egin</li> <li>- Saioen eta "praktiken" jarraipena egin</li> <li>- Ekintzaren balorazioa UHSen aldetik eta partaideen aldetik</li> <li>- Ekimenaren memoria bat egin</li> <li>- UHS-ko eragileekin barne gida bat sortuko da deribazioak burutzeko</li> </ul>
Helburua(k)	<p>SAIOEN HELBURU OROKORRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Ordiziara bizitzera etorri diren berriei edota denbora bat daramatenei harrera saio integral bat eskaini.</li> <li>- Pertsona bakoitzaren autonomia sustatu asmoz, herriko baliabide, azpiegitura eta dinamiketan murgiltzeko informazioa eskaini.</li> <li>- Arrisku egoerako kasuak detektatu, landu eta murrizten saiatu.</li> </ul> <p>HELBURU ZEHATZAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Sareko eragile ezberdinen arteko elkarlana indartu eta dinamika egonkorak sortu.</li> <li>- Ordiziako baliabideak eta beren erabilerak ezagutzera eman.</li> <li>- Pertsona ezberdinekin harremanak sortu eta erreferentziako pertsonak bilatu.</li> <li>- Herriko dinamiketan sozializatorako zubi lanak egin.</li> <li>- Herriko elkarteetara gerturatu.</li> <li>- Partaideen arteko harreman sareak sortzen lagundu.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- UHSko kideek bideratutako partaide kopurua</li> <li>- Ekintza baloratzeko batzarra burutu den</li> </ul>
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Parte hartu dutenen kopurua: sexua, jatorria eta adinak bereiztuz</li> <li>- Zein sailletatik bideratuak izan diren sailkatu</li> <li>- Ziurtagiria jaso dutenen kopurua</li> <li>- UHSko eragileen asetze maila balorazio orrian aztertua</li> <li>- Partaideen asetze maila balorazio orrian aztertua</li> </ul>
Arduraduna	Migrazio eta Aniztasun Teknikaria
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- UHSko eragileak</li> <li>- Udal Zinegotziak</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2021-2022-2023-2024ko azaroan eta abenduan
Ekintza burutuko den tokia	Barrena Kultur Etxea. 7. gela
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kontratazioak: Atzerritartasun Legea (SOS Arrazakeria), Atzerriko Tituluen Homologazioa (Bidez bidez Elkartea) eta Bisita Gidatua (D´elikatuz)</li> <li>- UHSko eragileen inplikazioa</li> <li>- Koordinazio lanak aniztasun Teknikaria</li> </ul>
Aurrekontua 2022	Ekintza + Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa

Oharra	
--------	--



E-2	1. ARDATZA: HARRERA
Ekintza	<b>1.2. Ongi etorri Harrera Instituzionala</b>
Nori zuzendua	- Urte horretan erroldatutako herritarrei
Deskribapena	Herritar berriak herrira bizitzera etortzen direnean, herrian ondo artatuak direla adierazteko keinu instituzionala egingo da Udaletxeko Batzar Aretoan Alkate zein Zinegotziek bideratuta. Harrera hori urtean behin egingo da, Ordiziako festen bueltan eta urtean zehar iritsi direnei zuzendua egongo da.
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Alkate eta Zinegotziek herritar berriei ongi etorria ematea.</li> <li>- Komunitate ezberdinetako ordezkariak ez ezik, herriko beste elkarte eta eragileak ere bertan egotea eta jatorri ezberdinetako ordiziarren arteko harremanak estutzea.</li> <li>- Ekimen hau Harrera Protokoloko beste programetara bideratzeko balio izatea.</li> <li>- Giro atsegina sortzea.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	- Herritarrei zuzendutako gonbidapen gutuna hizkuntza ezberdinetan bidaltzea
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Erroldatu direnen eta bertaratu direnen arteko aldea aztertu jatorria, sexua eta adinaz bereiztuta.</li> <li>- Bertaratu diren eragileen kopurua</li> <li>- Bertaratu direnenek balorazio sinplea egitea</li> </ul>
Arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Migrazio eta Aniztasun Teknikaria</li> <li>- Udal Batzordea</li> </ul>
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko elkarteak</li> <li>- Komunikazioa</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2022-2023-2024 Uztaila
Ekintza burutuko den tokia	Udaleko Batzar Aretoa
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gonbidapen gutuna hizkuntza ezberdinetan</li> <li>- Momentuan momentuko materiala (hamaiketakoa,...)</li> </ul>
Aurrekontua 2022	Ekintza + Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	Hamaiketakoa + sortu daitekeen material gastua

E-3	1. ARDATZA: HARRERA
Ekintza	<b>1.3. Ongi etorri Harrera Saio Txikiak</b>
Nori zuzendua	Azkeneko sei hilabetetan erroldatutako herritarrei
Deskribapena	Herriko baliabide eta dinamikei buruzko informazio konprimitua eskainiko da. Saio hauek, jatorri ezberdinetako ordezkariekin egiten saiatuko gara. Modu honetan, hizkuntza arazorik balego, itzulpena egiteko aukera egongo litzateke.
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskarara hurbiltzea.</li> <li>- Oinarrizko baliabideen informazioa eskaini.</li> <li>- Herritarren itzultzaile sare bat sortu.</li> <li>- Herriko hizkuntzei aitortza egin.</li> <li>- Elkar ezagutzarako espazioak sortu.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herritarrei zuzendutako gonbidapen gutuna hizkuntza ezberdinetan bidaltzea</li> <li>- Jatorri ezberdinetako ordezkariak inplikatzeari</li> </ul>
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Bertaratutako pertsonen kopuru eta ezaugarriak (jatorria, sexua, adina, lehen hizkuntza zein den, bertako hizkuntzen ezagutza)</li> <li>- Mezua ondo iritsi den ezagutu.</li> <li>- Euskara ikasteko hautua egin dutenen kopurua ezagutu.</li> <li>- Beste hizkuntzek eta gaztelerak izan duten erabilpen maila aztertu.</li> <li>- Beste programa batetara joateko hautua egin duten pertsonen kopurua eta profila.</li> </ul>
Arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Migrazio eta Aniztasun Teknikaria</li> <li>- Jatorri ezberdinetako Ordezkariak</li> </ul>
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Arreta Bulegoa</li> <li>- UHS-ko eragileak</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2022-2023-2024 Martxoa eta Iraila (bat goizez eta bestea arratsaldean)
Ekintza burutuko den tokia	Udaletxeko Batzar Aretoa
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Boluntarioen Sare bat sortu</li> <li>- Aurkeztuko dena prestatu</li> </ul>
Aurrekontua 2022	Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	

E-4	1. ARDATZA: HARRERA
Ekintza	<b>1.4. Nerabe eta Gazteen Harrera Taldeak</b>
Nori zuzendua	- Iritsi berriak diren nerabe eta gazteei (DBH1etik 2. Batxilergora) - Lehendik zeuden nerabe eta gazteei (DBH1etik 2. Batxilergora)
Deskribapena	Jatorria beste lurralde batean duten nerabe eta gazteei harrera egitea da. Horretarako, lau pertonez osatutako boluntarioen taldeak sortuko dira, posible bada bi eskolak nahastuz, eta harrera programa bat prestatuko diete herriko baliabide eta azpiegiturak erakusteko. Honekin batera, ikasturte batean zehar, bide lagunak izateko konpromisoa hartuko dute iritsi berriarekin egoteko eta herriko baliabideetara zubi lanak egiten laguntzeko.  Harrera programa hau, ikastetxeetako Harrera Protokoloetan txertatzeko balio dezake
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Iritsi berriarentzat herriko dinamikan txertatzeko bide lagunak sortzea</li> <li>- Euskara harrera hizkuntza erreferentea izatea.</li> <li>- Herriko gazte ezberdinen errealitateak ezagutzeko eta konpartitzeko espazioak sortzea.</li> <li>- Ikastetxeetako Harrera Protokoloei herrira bideratzeko atal bat sortzea.</li> <li>- Norberaren ikastetxeetako kideez gain, bestelako gazteak ezagutzeko aukera eskaini.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	- Harrera Taldeak sortzeko ahalmena
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sortzen diren Nerabe eta Gazteen Harrera Talde kopurua (partaideen ezaugarriak kontutan izanik: jatorria, sexua, adina)</li> <li>- Ikastetxeetatik sortzen diren boluntario kopurua</li> <li>- Sortzen den programa bera (egitaraua, ibilbidea, ...)</li> <li>- Urtean zehar Harrera Taldea eta iritsi berriak elkarrekin egiten dituzten ekintzak jaso</li> <li>- Euskarak izan duen presentzia aztertu</li> </ul>
Arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Migrazio eta Aniztasun Teknikaria</li> <li>- Gazteria Saila</li> </ul>
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Saila</li> <li>- Ikastetxeak: Oianguren eta Jakintza</li> <li>- Nerabe eta Gazte ikasleak</li> <li>- Gazte programak</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
Inplementazio denbora	2022-2023-2024 Progresiboki: Martxoa eta Urria
Ekintza burutuko den tokia	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Kalea</li> <li>- Gaztelekua</li> <li>- Etab.</li> </ul>
Baliabide teknikoak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Sare lana</li> <li>- A parteko materialik ez da oraingoz aurreikusten</li> </ul>
Aurrekontua 2022	Aniztasun Teknikariaren Kontratazioa
Oharra	Aurrera begira, gai hau sakondu daiteke beste herrietako programa ezberdinak ezagutzuz. Adib.: Koadrilategi. <a href="https://www.pasaia.eus/eu/-/kuadrilategi-18-19">https://www.pasaia.eus/eu/-/kuadrilategi-18-19</a>

E-5	1. ARDATZA: HARRERA
Ekintza	<b>1.5. Ongi etorri Ordiziara! Baliabide Gida</b>
Nori zuzendua	- Herrira bizitzera etortzen diren herritarrei - Lehendik zeuden herritarrei.
Deskribapena	Herriko baliabide, elkarte eta dinamikei buruzko informazioa jasotzen duen paperezko zein digitalezko liburuxka hizkuntza ezberdinetan itzulua: euskara, gaztelera, errumaniera, arabiera, ingelesa eta frantsesa. Bestalde, UHS-ko eragile profesionalentzat beste barne gida bat sortuko da besteek egiten dutena ondo ezagutzeko eta deribazioak errazago egiteko. Honekin batera, Harrera eta ahaldunderako programetara deribazioak egiteko informazioa eguneratuta egon beharko da.
Helburua(k)	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Herriko baliabideen gida bat sortzea</li> <li>- Lkuspegi integrala duen informazioa eskaintzea: zerbitzuak, elkarteak, azpiegiturak eta espazio publikoen mapa.</li> <li>- Herrian hitz egiten diren hizkuntza ezberdinetan argitaratu</li> <li>- Herritar guztiongana iritsi ahal izateko, lengoia erraza eta beste hizkuntza mota batzuetara egokitzea hausnartuko da (braille, piktogramak,...).</li> <li>- Gidan, euskarak gure gizartean duen balioa islatzea.</li> </ul>
Prozesuaren ebaluazioa	- Ahalik eta baliabide zein eragile gehiagotara iritsi benetan gidak ikuspegi integrala islatuta gera dadin.
Balorazioa egiteko adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eratze prozesuan parte hartutako herritar eta eragileak</li> <li>- Udaleko sail ezberdinek ekarpenak egitea.</li> <li>- Gidak herritar guztietara iristeko nondik banatu diren jasotzea</li> <li>- Zirriborroa oraindik denean, lehendik zeuden eta iritsi berriak diren eta jatorri euskalduna zein atzerritarra duten herritar solteekin kontrastatu ea baliagarria ikusten duten aztertzeke.</li> <li>- Inprimatu diren liburuxka aleak nahikoak diren ikustea.</li> <li>- Baloratu euskaraz ez dakitenekin ea gidan euskararen inguruan adierazi nahi genuena argi geratu den.</li> </ul>
Arduraduna	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Migrazio eta Aniztasun Teknikaria</li> <li>- Komunikazioa.</li> <li>- UHS-ko eragileak</li> </ul>
Eragile inplikatuak	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Euskara Saila</li> <li>- Jarraipen batzordea</li> </ul>
Lehentasuna	Altua
